


Administrazioko atal elebidunetako langileen  
hizkuntza-ohituretan

# eragiteko plana



Lasarte-Oriako Udaleko esperientzia:  
planteamendu teorikotik aplikazio praktikora



**Administrazioko atal  
elebidunetako langileen  
hizkuntza-ohituretan  
eragiteko plana.**

**Lasarte-Oriako Udaleko esperientzia:  
planteamendu teorikotik aplikazio praktikora.**



# Administrazioko atal elebidunetako langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko plana



Lasarte-Oriako Udaleko esperientzia:  
planteamendu teorikotik aplikazio  
praktikora

Egilea:

Aitor Unanue Zudupe

Dokumentuaren itxuratzzaileak eta maketatzzaileak:

Aitor Unanue Zudupe eta Arteder inprimategia

Argitaratzailea:

Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea.

Azalaren diseinatzailea eta edizioaren paratzailea:

Arteder

Inprimatzailea:

Arteder

Legezko gordailua:

Lasarte-Orian, 2006ko urtarrilean.

## **AURKIBIDEA**

HITZAURREA .....	9
SARRERA.....	13
1- ABIABURUA .....	17
1.1.- Lehenengo, idatzizkoan .....	18
1.2.- Ahozko erabileran eragiteko beharra .....	19
1.3.- Ahozko erabileran eragiteko asmoa.....	20
2- OINARRI TEORIKOAK .....	25
2.1- Ikuspegi kolektiboa, taldea alegia .....	26
2.2- Administrazioako lan-taldeak berezko talde gisa .....	27
2.3- Kuadrillategi egitasmoaren emaitzak eta hainbat hipotesi .....	28
2.4- Helmuga, prozesuaren autogestioa .....	28
2.5- Autorregulazioa.....	31
2.6- Ebaluazioa .....	32
2.7- Motibazioa .....	33
2.8- Oinarrizko beste hainbat kontu .....	35
3- LASARTE-ORIAKO UDALEKO ESPERIENTZIA.....	39
3.1- Egitasmoaren nondik norakoak .....	41
3.2- Egitasmoa aurkeztea .....	42
3.3- Egitasmoa programazioan zehar .....	43
4- EGITASMOAREN EBALUAZIOA.....	73
4.1.- Hainbat datu .....	74

4.2.- Ataza, jarduera eta ekintza nagusien balorazioa .....	74
4.3.- Langileen jarrera, usteak eta ahaleginaren nahiz emaitzen balorazioa.....	77
4.4.- Erabileraren bilakaera.....	80
5- ONDORIO NAGUSIAK .....	91
5.1.- Saio presentzialak .....	92
5.2.- Saioen iraupena eta maiztasuna .....	93
5.3.- Kontrola dela eta ez dela .....	93
5.4.- Metodologia .....	95
5.5.- Jarraipena.....	95
5.6.- Hutsuneak.....	96
6- BIGARREN FASEA.....	99
7- BIBLIOGRAFIA .....	103
8- ERANSKINAK.....	105
I.- Ahozkoan eragiteko plana aurkezteko informazio-orria .....	106
II.- Programazioa.....	108
III.- Galdera-sortak: Hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-portaera. Jarrera .....	116
IV.- Saioaren eragina neurtzeko galdera-sortak .....	122
V.- Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahaleginean izandako esperientzia .....	126
VI.- Erabilera-fitxa.....	127
VII.- Euskararen normalizazioaren pertzepzioa.....	128
VIII.- Polizia linguistikoarena .....	136

IX.- Lankideekiko harremanetako hizkuntza. Mintzagramak .....	1388
X.- Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak.....	40
XI.- Euskararen erabilera bikoteka .....	14848



# HITZAURREA

Esperimentu baten berri ematen zaizu liburu honetan. Intuizio baten ondoriozko esperimentua, eskarmentuak eskatzen zuena eta gehienetan gauzatzen ez dena. Administrazioan gauzatzea ohikoa ez den esperimentua.

Esperimentua egiteko, ordea, esperimentua bera egitea posible egiten duten osagaiak ere behar dira. Kasu honetan, laborategiaren aterpea Udalak onetsitako erabilera-planak jarri du: Eusko Jaurlaritzak indarrean jarritako 86/1997 Dekretua betetzeko onetsitako planak, hain zuzen ere.

Laborategiaz gain, diruzaintza ataleko langileak izan dira esperimenturako beharrezkoak diren esperimentu-gaiak, *akuriak*. Beren ohitura batzuk aldatzeko borondatea eta ahalegina jarri dutenak. Ez da gutxi.

Edozein kasutan, guztiak garrantzitsuak izanik ere, osagai nagusia ikertzailea bera da. Laborategian *akuriek* egin nahi/behar den esperimentua pentsatu eta zuzenduko duena. Hori gabe ez dago esperimenturik.

Ikertzailea Aitor Unanue izan da, euskarako zerbitzuko lankidea. Ikertzaile berezia. Berezia, haren lanpostuaren izena ez delako hizkuntza-ikertzailea, euskaltegiko irakaslea baizik. Berezia, ikergai honetarako ez duelako izan ez berariazko prestakuntzarik, ez erreminta-kaxarik.

Gabezia horiek, ordea, intuizioarekin, lanerako gogoarekin eta inguruan dituenen jarrerak hobetzeko duen dohainarekin estali ditu, gainditu ditu, agian. Eta hori asko da.

Esperimentuaren mamia, berriz, gogorra da. Nola aldatu ohiturak? Nola aldatu hizkuntza-ohiturak?

Ez dira erantzuteko galdera errazak, guretzat behintzat ez. Errazak ez izateak, ordea, ez dio garrantzirik kentzen. Ohiturak duen garrantzia du, eta, gero eta euskaldun gehiago izan arren, nola bihurtu behar dugu gaitasuna erabilera? Gaitasuna

hobetuz, erantzungo du norbaitek. Eta nola hobetuko dugu gaitasuna erabilerarik gabe?, galdetuko dio besteak.

Harreman-sareetako hizkuntza-ohiturak aldatzeko bideak, proposamenak, erremintak... behar ditugulakoan gaude gu. Hor iruditzen zaigu dagoela mamia.

Toki (eta hizkuntza normalizatzeko plan) askotako ogiek duten mami bera, mami gogorra. Kosk egiten hasteko ordua ere iritsi zaigun ogia. Eta badakizue, *Ogi gogorrari hagin zorrotzak*.

Iñaki Arruti



**SARRERA**

Administrazioko atal elebidunetako langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko plan bat prestatzea erabaki nuenean, egia esateko, ibili beharko nuen bidearen ezaugarri orokor batzuk baino ez nituen ezagutzen: luzea izango zela, gorabehera ugarioa, norabidearekin erne ibili beharrekoa eta bide-lagunen jarrera nolakoa, ibilera halakoa behar duen horietakoa.

Hizkuntza-ohituren alorrean neukan esperientzia apurra administrazioko erabilera planen baitan garatutako egitasmo batetik jasotakoa zen. Egitasmo hori langileen trebakuntzaren osagarri gisa planteatua nuen, eta helburu nagusia zuen langile baten eguneroko lan-jardunetik eginkizun batzuk aukeratu eta langilea eginkizunok euskaraz gauzatzeko prestatzea. Orduan hasi nintzen langile bakoitzaren harreman-sarea definitu, sare horretako kide euskaldunak identifikatu eta kide horiekiko harremanetarako aukerak eta eragozpenak aztertuz hizkuntza-ohituretan eragiteko oinarriak finkatzen.

Eskuartean duzun lanaren muina den esperientzian, ordea, taldea zen oinarri. Aurreko egitasmoan ez bezala, harreman-sareko kide guzti-guztien sinesteak, jarrerak, portaera-intentzioak eta portaerak ezagutzeko aukera izango nuen. Hizkuntzazko elkarrekintza aurrez aurre behatzeko parada. Alderdi psikolinguistiko eta afektiboari hurbilagoatik erreparatzekoa. Lantegi zail bezain erakargarria nire bizkar hartzekotan nintzena! Antzeko esperientziarik ezagutu ez eta alor horretako hutsunea estali beharra zegoela uste nuenez, aurrera egiteko erabakia hartu nuen.

Eskuartean duzun lanak oinarri teorikotik adina du intuiziotik; planifikaziotik adina berezkotasunetik. Beldurra eta ausardia izan ditu estimulu-iturri. Gauzak oker egiten ari ote denaren kezka eta ustez asmatu izanak dakarren poza ditu nahasian, osagai. Hitz gutxitan esateko, egundoko abentura izan da esperientzia gazi-gozo hau –gazi-gozoa diot zeren eta portaera-aldaketen gisako kontuetan aurrera bezain erraz egiten baita atzera ere—. Eta emaitza, alderdi kuantitatiboari dagokionez, erabilera-indizeari alegia, hauxe:

### Erabilitako kodea

- (4)- la beti euskaraz
- (3)- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- (2)- Bietara.
- (1)- Erdaraz euskaraz baino gehiago
- (0)- la beti erdaraz

### Departamentuko euskararen erabileraren bilakaera

2005-01-11ko indizea	2005-03-15eko indizea	2005-05-24ko indizea
0,97	1,54	1,96

### **Departamentuko euskararen erabileraren bilakaera:**

**0,97 ⇒ 1,96 (Δ) +0, 99**

**la puntu bat egin zuen gora erabilerak.** Emaitza horrekin eman genion bukaera planaren lehenengo faseari. Hasi besterik ez ginen egin, ordea. Lehenengo urratsak bigarrena zuen zor, eta iruditu zitzaigun merezi zuela lanaren berri idatziz eman eta idatzitakoa liburuxka batean argitaratzea, euskararen erabilera areagotzeko erronkari aurre egiteko tresna egokia izan zitekeelakoan. Gainera, esperientzia paperera ekartzeko ahaleginaren bidez, gogoeta sakona egitera behartuko nuen neure burua, eta oinarri ezin hobea izango nuen planaren balizko bigarren fase bati ekiteko, hala erabakiz gero.

Liburuxka taxutzerakoan, administrazioko erabilera-planetan hizkuntza-normalizatzaile diharduzuenok eta euskarako zerbitzuetako arduradun zareten teknikariok izan zaituztet gogoan, nagusiki. Hizkuntza-normalizatzaileok, zuen udaleko langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko asmotan bazabiltzate, honako honetan heldulekutxo bat izan dezazuen. Eta euskara zerbitzuetako arduradunok, berriz, hizkuntza-ohituren gaineko

talaia honetatik beste ikuspegi bat izan dezakezuelakoan euskararen normalizazioaren eremu luze-zabala jorratzerakoan.

Bukatzeko, lana irakurtzeko moduari buruzko aholkutxo bat eman nahi dizuet. Lanaren ia erdia planean garatutako jardueren gaineko eranskinek osatua denez, eta lanean zehar eranskin horiei buruzko erreferentzia ugari egiten dudanez, hona hemen nire gomendioa:

- Gisa honetako plan bat inplementatzeko asmotan zabilzatenok –hizkuntza-normalizatzaileok–, ezinbesteko duzue lana irakurtzen duzuen bitartean –batez ere jardueren azalpenei buruzko atalean– eranskinetara jotzea, plana bere ñabardura guztiekin ezagutzeko.
- Hizkuntza-ohituretan eragiteari buruzko ikuspegi orokorra nahi duzuenok –euskara zerbitzuetako arduradunok–, jardueren gaineko hainbeste zehaztasunik gabeko irakurketa egin dezakezuela iruditzen zait –eranskin guztietara jo beharrik izan gabe, alegia–.

# **ABIABURUA**

Ondoko orrietan azaltzera noan esperientziaren marko orokorra Administrazioaren erabilera planek osatzen dutela jakitea ezinbestekoa da gure burua behar bezala kokatzeko. Administrazioaren esparruan, Lasarte-Oriako Udalak bide hau du egina:

- ▶ *"Lasarte-Oriako Udalean Euskara Erabiltzeko I. Plana (2001-2003)"<sup>1</sup>*
- ▶ *"Lasarte-Oriako Udalean Euskara Erabiltzeko II. Plana (2003-2007)"*

Lehenengo planean eta bigarrenaren hasieran, AEBEMET metodologiak eskaintzen dituen normalizazio-ekintzen artean banakako trebakuntzan egin genuen ahalegin berezia. Lan-modu horretan jardunez lortu genituen emaitzak oparoak izan ziren arren, mugak ere nabarmen. Eta, jakina, muga horiek gaitutako zituen planteamendu osatuago bat egiteko beharra sumatzen hasi ginen<sup>2</sup>. Erabilera planen helburu nagusia lortuko bagenuen, hizkuntza-ohituretan eragingo zuen metodologia bat ezinbesteko genuen, zeren eta trebatze-saioetatik kanpo langileak hizkuntza-portaera aldatzea lortzen ez bagenuen... Baina, has gaitezen hasieratik.

### 1.1.- Lehenengo, idatzizkoan

Herri Administrazioetan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da euskara planen **helburu nagusia**, bai zerbitzu-hizkuntza bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei egoki erantzun ahal izateko.

---

<sup>1</sup> Eta planaren osagarri, honako hau ere egina du: *"Lasarte-Oriako Udalean Euskara Erabiltzeko I. Planaren Ebaluazioa"*.

<sup>2</sup> Gai horri buruz informazio gehiago nahi izanez gero, lan honetara jo dezakezu: *"Trebakuntza Lasarte-Oriako Udaleko I. Erabilera Planean. Azterketa eta planteamendu osatuago beterako proposamenak"*. HIZNET 2003-2004. Sakontze-egitasmoa.

Zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza berriaz aipatzen dira euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 Dekretuan. Ahozko eta idatzizko erabileraren aipamen zehatzik ez da egiten. Lasarte-Oriako Udalean euskara erabiltzeko I. plana diseinatzerakoan, ordea, **idatzizko erabileran bakarrik eragiteko erabaki hartu genuen**, deliberatuki hartu ere. Ez ahozkoan eragiteko premiarik sumatzen ez genuelako, baizik eta hasiera hartan ahozkoan eragitea zailago begitantzen zitzaigulako. Zergatik? Hona hemen erabaki hori hartzera bultzatu gintuzten arrazoi nagusiak:

- ▶ Elkarrizketa mintzatua, idatzizko jarduna ez bezala, prozesu poligestionatua da, eta ondorioz, banakako planteamendutik harago joan beharko genuke. Horrek, jakina, interferentzia handiagoa lekarke langilearen eguneroko lan-jardunean. Hori dela eta, alde batera uztea erabaki genuen, aurrerago heltzekotan edo.
- ▶ Jendaurreko lanpostuak betetzen dituzten langileen kasuan izan ezik, ahozko jardunaren zati handi bat lan-hizkuntzari dagokio, eta zailagoa da eragitea, langileek, oro har, ez dutelako hain barneratua euskarak lan-hizkuntza ere izan behar duenik<sup>3</sup>. Zerbitzu-hizkuntza izatearena bestela bizi dute, herritarren hizkuntza-eskubideak baitaude tartean.

## 1.2.- Ahozko erabileran eragiteko beharra

Lehenengo plana garatetik jasotako eskarmentuak zera erakutsi dit: oro har, ahozko erabilera idatzizkoa baino ugariagoa da administrazioko jardunean, bai lan-hizkuntza bai

---

<sup>3</sup> Langileen artean honako uste hau dago zabaldua: hala nahi duen herritarrak zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea du, baina horrek ez du esan nahi atal barrurako lana euskaraz egin behar denik. Eta, jakina, ez dira jabetzen uste horrek dakarren hizkuntza-portaeraren ondorioz errotzen diren hizkuntza-ohiturek euskararen ezagutza eta erabilerari egiten dieten kalteaz.

zerbitzu-hizkuntza gisa. Badakit ez dudala gauza handirik deskubritu, horren jakitun egongo baitzarete administrazioan diharduzuenok –hori aztertzea jarri zaretenok, behinik behin–. Baina kontua zera da: hori horrela izanik, ez ote da ezinbestekoa ahozko erabilerari heltzea administrazioan euskararen erabilera normalizatuko bada?

Zalantzarik ez dago Euskara Planen helburu nagusian ahozkoan ere eragitearena, inplizituki behintzat, jaso geratzen dela. Beraz, argi dago: ahozko erabileran ere eragin beharrean gaude, luze gabe gainera. Nola, ordea? Zein metodologia erabiliko dugu? Zein udaletan garatu dituzte gisa horretako egitasmoak? Nondik hasi?

### **1.3.- Ahozko erabileran eragiteko asmoa**

Udaletako langileen ahozko erabileran eragitea lantegi zaila zela jakin arren, ausartu eta gure aztergai-zerrendan lehentasunezko lekua eman genion erabilera planak kudeatzeaz arduratzen ginen Buruntzaldeko hizkuntza-normalizatzaileek<sup>4</sup>. Gaiaren zailtasunaz jabetuta, lehenengo eta behin Gipuzkoako beste udal batzuetako egitasmoei buruzko informazioa biltzeari ekin genion, haiek aztertutakoan nondik nora jo erabakitzea errazago gertatuko zitzaigulakoan. Hona hemen udal horietan garatu dituzten egitasmo nagusien balorazio labur bat, gu denon ekarpenekin osatua<sup>5</sup>. Egitasmo hauexek aztertu genituen:

---

<sup>4</sup> Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo (Gipuzkoa) udaletako euskarako zerbitzuek hitzarmen bat dute sinatua elkarlanean aritzeko, eta lankidetzarako bat egite horri Buruntzaldea deritzo. Azterketa horretan, herri horietako guztietako hizkuntza-normalizatzaileek hartu genuen parte, Usurbilgoak izan ezik.

<sup>5</sup> Egitasmoen arduradun eta antolatzaileekin ez dugu zuzeneko harremanik izan. Udal horietatik jasotako idatzizko informazioan oinarritu dugu azterketa -egitasmoen aurkezpenetan eta balorazioetan, nagusiki-. Antzeko egitasmoetan izandako esperientzia ere izan dugu oinarri; intuitibotik ere badu zerbait, aitortu beharra dago. Mugatua da, beraz, gure azterketak duen balioa.

- ▶ Hitzaldiak. Euskararen normalizazioan, hizkuntza-portaeran, hizkuntza-ohituretan eta euskararen erabilerarekin oro har zerikusia duten gaietan adituak direnek ematen dituzte.
- ▶ Norberetratuak. Eguneroko jardunean euskararen ahozko erabilera areagotzeko konpromisoak biltzen dira bertan.
- ▶ Mintzatratuak. Hainbat departamentutan euskarazko harreman-sarea osatzen laguntzeko sinatzen dira.
- ▶ Karteltxoak. Euskararen erabileran motibatuzko prestatu eta lan-mahaian, hormetan eta beste hainbat tokitan jartzen dira.
- ▶ Komunikazio-zirkuluak. Erabilera plan baten barruan, euskara erabiltzeko aukerak identifikatzeko, erabilera garatzeko neurriak lantzeko, eta baliabideak eta arduradunak zehazteko sortzen diren taldeak dira.

Buruntzaldeko hizkuntza-normalizatzaileen balorazioa			
Ekintza	Ezaugarri nagusiak	Indarguneak	Ahuleziak
<b>1- Hitzaldiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordu eta erdi ingurukoak.</li> <li>- Ebaluazio-fitxak betetzen dira bukatutakoan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileari gogoeta eraginez, sentsibilizatzefuntzioa betetzen du, eta motibazioa areagotzen laguntzen du</li> <li>- Hizkuntza-ohiturak aldatzeko plan baten barruan antolatzen badira, motibazioa sortzeko oso baliagarriak dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza-ohiturak eta jarrerak maila teorikoan lantzen dira. Ez da, oro har, teoriatik eguneroko hizkuntza-jardunerako dispositibo metodologiko-didaktikorik aktibatzen.</li> <li>- Ekintza puntuala bada, eta beste egitasmo zabalago baten barruan planteatzen ez bada, apenas eragiten duen hizkuntza-ohituretan.</li> </ul>
<b>2- Norberetratua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen ahozko erabilera areagotzeko konpromiso individuala.</li> <li>- Bilakaera ebaluatzen saioak daude.</li> <li>- Lankideen artean neurtzen da hizkuntzaren erabilera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileen hizkuntza-portaeran eragiten duela dirudi.</li> <li>- Egitasmoaren dinamizatzaile moduko bat dagoenean (irakaslea), funtzionatzen du (euskaltegietan).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraupen motzeko eragina.</li> <li>- Konpromiso pertsonal hutsean oinarritzen da, eta ebaluatzen saioez gain, ez da garabiderik jorratzen. Erabilera neurtzeko tresnak, helburuen betetze-maila neurtzeko ebaluazio-irizpideak, motibazioaren eragiteko ekintza programatuak eta abar falta zaizkio.</li> <li>- Bilakaera ebaluatzen da, baina ez du, besteak beste, jardunbide finkaturik, metodologiarik, hizkuntza-mekanismoen inguruan gogoeta egiteko eta mekanismo horiek euskararen alde jartzeko.</li> <li>- Hutsune bat sumatzen da, hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuaren ebaluazio-irizpide zehatzak eta langilea prozesuaren autorregulatzailerik bihurtuko duen metodologia falta ditu.</li> </ul>

<p><b>3- Mintzatraturua</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabaki kolektiboan oinarritzen da: norberetraturua bezalakoa, baina ataleko lankideen artekoa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileen hizkuntza-portaeran eragiten duela dirudi.</li> <li>- Ataleko langileen artekoa izanik, pentsatzekoa da oinarri sendoagoa eskainiko duela hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuari ekiteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraupen motzeko eragina.</li> <li>- Konpromiso pertsonal hutsean oinarritzen da, eta ebaluatzeko saioez gain, ez da garabiderik jorratzen. Erabilera neurtzeko tresnak, helburuen betetze-maila neurtzeko ebaluazio-irizpideak, motibazioan eragiteko ekintza programatuak eta abar falta zaizkio.</li> <li>- Bilakaera ebaluatzen da, baina ez du jardunbide finkaturik, metodologiarik, hizkuntza-mekanismoen inguruan gogoeta egiteko eta mekanismo horiek euskararen alde jartzeko.</li> </ul>
<p><b>4- Karteltxoak</b></p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jendaurreko lanpostuetan, langile horrekin euskaraz egin daitekeela jakiteko modua eskaintzen dio herritarrari.</li> <li>- Beste egitasmo sendoago baten osagarri gisa planteatu daiteke, ekintza-plan bateko ekintza gisa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarrei begira planteatua badago, zerbitzu-hizkuntzan eragingo du nagusiki, lan-hizkuntza alde batera utzita.</li> </ul>

<p><b>5- Komunikazio-zirkuluak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabakia kolektiboan edo indibidualean oinarritu daiteke.</li> <li>- Ados dauden langileek osatzen dute taldea.</li> <li>- Hainbat langile biltzen dira, inplikaturik dauden atalen ordezkari gisa.</li> <li>- Bileratik ateratakoa ataletan komentatzen da.</li> <li>- Nork bere buruari jartzen dizkio helburuak.</li> <li>- Etengabeko autoebaluazioa egiten da.</li> <li>- Zirkulukiak bertan jasotzen dute proiektu hori martxan jartzeko behar duten euskarazko trebakuntza (enpresa munduko erabilera planetan).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ataleko lankideei euskararen erabilera inguruan hitz egiteko aukera eskaintzen diete —eta gainera, euskaraz egiten dute—.</li> <li>- Euskara erabiltzeko aukerak identifikatu eta horiek garatzeko neurriak, baliabideak eta arduradunak jasotzen dituen proiektu bat garatzeko egokiak dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabakigune huts izan daiteke.</li> <li>- Ataleko eguneroko landinamikan bertan eta "in situ" ez eragitea: erabakiak beste gune batean hartzen dira, eta ondoren, dagokion atalean aplikatu.</li> <li>- Litekeena da lan-sail bateko kide batzuk bakarrik parte hartzea, ez guztiek.</li> </ul>
--	---	---	--

# OINARRI TEORIKOAK

Planteamendu osatuago bat egiteko proposamen berririk ez dakarren azterketa kritiko batek ezer gutxitarako balio du. Ezinbesteko du, beraz, bide alternatibo bat eskaintzea. Eta, kasu honetan, nolakoa behar du bide horrek? Labur zurrean esanda, egindako azterketan sumatu ditugun ahulezia eta gabeziak gaindituta jaio beharko luke hizkuntza-ohituretan eraginez euskararen erabilera areagotzeko helburua duen egitasmo batek. Gainera, ahulezia eta gabezia horiek gainditzekotan, oinarri teoriko gutxieneko batzuk beharko ditu, haien gainean plan bat eraiki eta esperientzia berri bat abian jartzeko. Azaltzera noakizuen esperientzia berri honek baditu, xume bezain sendoak nire ustez, eta oinarri horiexek izan dira abenturatxo honetan murgiltzeko adorea eman didatenak.

## 2.1- Ikuspegi kolektiboa, taldea alegia

Beste udal batzuetan garatutako egitasmoetan ikus daitekeenez, hizkuntza-ohiturak aldatzeko erabakia indibiduala edo kolektiboa izan daiteke. **Zalantzarik ez dago ikuspegi indibidual batetik planteatutako egitasmo baten bidez nekezagoa gertatuko dela aldateta-prozesua.** Izan ere, departamentu bateko langile batek euskararen aldeko joera sendotzea erabakitzen badu, sustrai sakonak dituzten hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahalegina egiteaz gain, lankideen ohituren aurkako borroka latza ere egin beharko du, haien ohiturek lehengoan jarraituko baitute.

*"Funtsean gizabanakoen erabakietan oinarrituz, euskararen erabilpenak ezin du aurrerapen ikusgarririk egin, gizarteko mikroegiturak direla eta, faktore psiko-soziologikoen eragin izugarria ahazten baitu. Gizarte faktore horien guztien kontra zeregin gutxi du gizabanakoaren ahaleginak. Erdararen aldeko funtzionamendu kolektiboa iraultzeko euskararen aldeko erabaki kolektiboa behar da funtsean, bai eta tresna kolektiboak erabiltzea ere. Horregatik diogu, gizabanakoek ez baina taldeek izan behar dutela erabilera normalizatu nahi*

*duen mugimenduaren oinarri. Berezko taldeak dira unitate txikiak."*

*"Berezko taldeen hizkuntza-egoera iraul dezakeen indarra taldeetan bertan dago, haien erabaki kolektiboan alegia. Hizkuntza-mekanismo kolektiboak euskararen alde jartzeko prozesuak ezaugarri hauek bete beharko lituzke:*

- ▶ *Talde-motibazioa lantzea, alegia, berez egituraturik dagoen taldeari euskararen aldeko mezuak igortzea, talde osoaren euskal gogoaz pizteko, euskararen erabilera areagotzeko erabakia talde osoak adostua izan dadin.*
- ▶ *Behin prozesua abiatuz gero, taldeen osotasunari eustea, taldea sistema osoa izanik sistemaren hizkuntza-norabidea aldatzeko sistema osoarekin lan egin behar baita.*
- ▶ *Euskararen erabilera helburua eta helbidea izatea. Bai ikas-prozesua bai normaltze-prozesua –ohitze-prozesua ere esan diezaiokegu– euskararen erabileran oinarritu behar da, edo nahi bada sozializatzeko-prozesu gisa ezaugarritu dezakegu, non gaitasun handiko hiztunak gaitasun urriagokoen sozializatzailerik gisa aritzen diren (Jauregi 1998)."*

## **2.2- Administrazioko lan-taldeak berezko talde gisa**

Administrazioko ataletako kideez osatutako lan-taldeak ere, oinarriko taldeak direnez, berezko taldeak har ditzakegu. Izan ere, funtzio bat betetzeko osatzen dira taldeak; kasu honetan, udal bat administratzeak berekin dakartzan eginkizunak betetzeko. Eta ukaezinezkoa da eguneroko lan-jardunean harreman sendoak garatzen eta finkatzen direla, eta harreman laboral horiek hizkuntzaren bidez gauzatzen direla, eta **hartu-eman horretan ezinezkoa dela arlo afektiboa alde batera uztea –zeregin formal horiekin batera gauzatzen**

**baitira, tartekaturik, harreman informalak ere—.** Horrenbestez, baliagarria iruditzen zait oso Pello Jauregiren tesia, kontuan izateko modukoa administrazioko atal elebidunetan euskararen erabilera areagotzeko egitasmo bat diseinatzerakoan.

### **2.3- Kuadrillategi egitasmoaren emaitzak eta hainbat hipotesi**

Gainera, badira hainbat ondorio, *“Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak”* liburuan argitaratuak, zeinetan oinarritu baititut azaltzen ari naizen egitasmoaren ardatz nagusi diren hipotesiak —euskararen erabilera areagotzeko egitasmoa abian jarri eta lehenengo emaitzak ebaluatu bitartean, ikuskizun dago administrazioko lan-taldeetan zein neurritan beteko diren—:

- ▶ Euskarazko gaitasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da erabilera ere.
- ▶ Lan-taldearen hizkuntzazko gaitasun-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta euskararen erabilera handiagoa egingo dute langileek lan-sailean.
- ▶ Lan-taldearen erabilera-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da euskararen aldeko joera erakutsiko duten langileen proportzioa.

### **2.4- Helmuga, prozesuaren autogestioa**

Esan gabe doa erabaki kolektibo bat erabaki indibidual askoren baturaz osatua dagoela, eta ahalegina, funtsean, norberak egin beharko duela; hori bai, taldearen babes eta bultzadarekin. Langileak, hizkuntza-ohiturak aldatzearen aldeko jarrera erakutsi eta konpromisoa hartzen badu, hizkuntza-portaera aldatzera bideraturiko prozesu bat hasi beharko du, aldaketa

hori ez baita gaurtik biharrera gertatzen den zerbait, egunero gauzatu beharreko eginkizun txikiz osaturiko prozesu luze baten emaitza baizik. Langileak ibilbide bat hasten du, nekeza, konpromiso bat hartzetik hasi eta konpromiso hori -maila batean edo bestean- betetzera doana.

Ibilbide horretan, hainbat faktore psikolinguistiko eta psikosozilogikok eragiten dute. Ikas-prozesu bat da azken batean, zeinetan langileak hainbat estrategia erabili beharko baititu, besteak beste, motibazioari eutsi edota hura areagotzekoak. **Prozesuaren hasieran, laguntza izatea ezinbestekoa izango du**, eta hori izango da hizkuntza-normalizatzailearen –aurrerantzean dinamizatzaile– zeregina, alegia, prozesua gidatzea eta dinamizatzea, estrategia horiek hizkuntza-ohiturak aldatzeko konpromisoa hartu duten hiztunen eskura jartzea, eta haiek erabiltzen laguntzea.

**Aurrera egin ahala, prozesuaren gaineko ardura dinamizatzailearengandik parte-hartzailearengana igaroko da, progresiboki, eta nork bere gain hartu beharko du aldaketa-prozesua, autonomia garatuz. Bestela esanda, langileak berak prozesua autogestionatzea da helburua.**

Aldaketa-prozesu horretan egin behar diren urratsak neurtzeko, hiru parametrook izan ditut kontuan:

- Erabileraren **kontrola**.
- Prozesuaren **erregulazioa**.
- Prozesuaren **ebaluazioa**.

Bestalde, aldaketa-prozesu guztietan bezala, parte hartzen duten bi subjektuak aintzat hartzea ezinbestekoa da:

- Batetik, aldaketa eragitera datorrena dugu, kasu honetan dinamizatzailea.

- Bestetik, aldaketa jasotzen duena<sup>6</sup>, oraingo honetan udaleko departamentu bateko langileak.

Begi-bistakoa da bi alderdiak daudela prozesuan inplikatuak, nahiz eta hasieran aldaketa-eragilea izango den aktiboagoa. Hasieran diot zeren eta aldaketa-jasotzaileak, baldin eta aldaketa onartzeko erabakia hartzen badu, eragile aktibo bihurtu beharko baitu prozesuak aurrera egin ahala, prozesua bizkortzeko eta arrakasta bermatzeko. Rol aldaketa horretan, aldaketa jasotzen duena "hartzaile" izatetik "emaile" izatera igaroko da, eta nire ustez, igarobide hori progresio baten arabera egitea komeni da. Irudika dezagun progresio hori.

Lehen aipatu ditudan hiru alor horiei gagozkielarik (kontrola, erregulazioa eta ebaluazioa), **prozesuaren hasieran aldaketa-eragileak (dinamizatzaileak) hartuko du haien ardura nagusia**. Beraz:

KONTROLA  
HETERO - ERREGULAZIOA -ren aldia da  
EBALUAZIOA

**Ondoren, dinamizatzaileak eta departamentuko langileak partekatu egin beharko dituzte hiru alorretako zereginak.** Kolaboratzeko garaia da. Hau da:

KONTROLA  
KO - ERREGULAZIOA -ren aldia da.  
EBALUAZIOA

**Eta azkenik**, langileak erabilera kontrolatzeko eta prozesua erregulatzeko eta ebaluatzeko jardueretan dinamizatzailearekin

---

<sup>6</sup> Zalantzan ibili naiz, JASO ala NOZITU. zein aditz ote den egokiena erabakitzerakoan. Azkenean, NOZITU gogorregia delakoan, JASO aukeratzea erabaki dut. Dena dela, kontuan izan behar dugu aldaketa oro eta haren aurrean sortzen den erresistentzia -izan pasiboa edo aktiboa, izan kontzientea edo inkontzientea- eskutik helduta etortzen direla beti..

batera arituak direnez, **bakarka jarduteko garaia iritsi zaie, autonomiaz jokatzekoa.** Alegia:

KONTROLA  
AUTO - ERREGULAZIOA -ren aldia da.  
EBALUAZIOA

Nolanahi ere, aldiz aldiko progresio hori ez dugu estuegi hartu behar, eta komenigarria da, esaterako, KOLaborazio-aldiari ekiten diogunean “HETERO” aldiko lanketa-mota ere tartekatzea. Eta beste hainbeste langileak AUTOnomoki jokatzera bultzatu nahi ditugunean, orduan ere beste bi aldietako lanketa-motak noizean behin tartekatuz. Bestela esateko: lehenengo aldiko lanketa-mota egiten hasita gaudelarik bigarren aldikoari ekiten diogunean, bi lanketa-motak konbina ditzakegu –adibidez, hetero-ebaluazioa eta ko-ebaluazioa–. Halaber, hirugarren aldira iristen garenean, hiru alditako lanketa-motak jorratu ditzakegu –adibidez, hetero-erregulazioa, ko-erregulazioa eta autorregulazioa–. Nolanahi ere, progresioaren ordena hautsi nahi izanez gero, autorregulaziotik has gaitzke parte-hartzaileek alor horretan dauzkaten gabeziak identifikatzeko, eta ondoren, hetero-erregulazioaren bidez hutsune horiek lantzen hasi. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar helburu nagusia parte-hartzaileak autokontrolera, autorregulaziora eta autoebaluaziora iristea dela.

## **2.5- Autoerregulazioa**

Agerikoa da hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuan langileek ohitura berriak lehenengo ikasi, eta ondoren, bereganatu eta asimilatu egin beharko dituztela. Alde horretatik, aldaketa-prozesua ikas-prozesu batekin parekatzeko saiakera egin dezakegu, hizkuntzak ikastekoarekin konparazio batera. Hori onarturik, ikasketen erregulazio jarraituaren gainean esaten direnak lagungarri gertatuko zaizkigu hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dituzten langileek ikasi beharreko estrategiak nola landu planifikatzerakoan.

- ▶ Erregulazio-jarduera langileek berek gidatzea nahi badugu, honako helburu pedagogiko hauek lehenetsi beharko ditugu:
  - Lortu nahi ditugun helburuak komunikatzea eta helburuon gainean langileek egiten duten errepresentazioa egiaztatzea.
  - Estrategiak garatzeko gauzatuko diren ekintzen aurre-hartze eta planifikatze ariketak egiteko trebetasuna<sup>7</sup>.
  - Ikasitakoa ebaluatzeko irizpideak eta tresnak eskuratzea.
  
- ▶ Irakaskuntza-ikaskuntzako eredu konstruktibistaren arabera, ikasle batek eduki berri bat ikasteari ekiten dionean, oro har, aurrez eraikiak ditu bere ideia eta azalpenak, bere esperientzia pertsonaletik abiatuta. Hori dela eta, irakaskuntza hartzen da gehiago ikaslearen ideien bilakaera gidatu behar duen prozesutzat, ikaslearen eskura ezagutza guztiz berriak jarri nahi dituen tekniken multzoa baino. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuari eredu konstruktibistaren argitan erreparatzen badiogu, esan dezakegu aldaketari ekite aldera langileei eskaintzen dizkiegun edukien aurrean, langileek honela jokatuko dutela: eduki horiek bereganatzerakoan, jadanik dituzten esperientzien gainean eraikiko dituzte ideia berriak, sinesteen gainean hain zuzen ere. Beraz, gure eginkizun nagusia izango da sineste horien bilakaera gidatzea, aldaketarantz gidatu ere.

## 2.6- Ebaluazioa

Ezaugarri hauek bete behar ditu ebaluazioak:

---

<sup>7</sup> Aurre-hartzea da predikzio moduko bat lortuko denaren gainean edo lortu nahi dugun helburua lortzeko bide jakin bat jarraitzeak duen garrantziaren gainean. Planifikazioa da jardunbide jakin bat aukeratzea, lanerako plan bat, bilakatu eta aldatuko dena ibilbidean izandako emaitzen kontrolpean.

- ▶ Formatiboa izan behar du, eta ikaslearen gaitasun kritikoa garatzeko modukoa.
- ▶ Prozesuari buruzko informazio ugarian oinarritua egongo da.
- ▶ Integrala izan behar du. Emaitzez gain, prozesuko faktore eta elementurik nagusienak aztertu behar ditu: programazioa bera, jarrerak, motibazioa, helburuen egokitasuna eta abar.
- ▶ Jarraian ebaluatu behar da, eta modu planifikatuan.
- ▶ Lehentasunak ezarri behar dira.

Ebaluazioak, oro har, informazioa eman eta prozesuan inplikatuaren atxikimendua indartzeko balio behar du. Horretarako, etengabe hitz egin behar du dinamizatzailerak parte hartzaileekin prozesuaren alderdi guztiei buruz, prozesua modu jarraituan hobetzeko: azaltzen diren alderdi positiboak errotzeko eta eragozpenei aurre egiteko.

Harreman estua dago ebaluazioaren eta helburuen artean. Lorpenen eta finkaturiko helburuen arteko distantzia eta aplikatutako tekniken eraginkortasuna neurtzean datza oinarritzko ebaluazioa.

## 2.7- Motibazioa

Motibazioan faktore ugari eragiten dute. Motibazioa, izatez, hainbat faktore ezberdin estaltzen dituen guardasol erako terminoa da. Kontua da identifikatzea zeintzuk diren giltzarrizko aldagaiak.

Hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesua luzea da oso. Hori dela eta, hiztunaren gogoia, arreta, konpromisoa eta saiatzeko tema erabakigarriak dira hiztun horren arrakasta edo huts-egiterako.

Gizakien portaerak oinarritzko dimentsio bi ditu: **norabidea** eta **zenbatekoa** (intentsitatea). Hori dela eta, motibazioa, definizioz, bioi dagokie. Motibazioari zor zaio:

- Ekintza jakin bat egitea **hautatzea**.
- Ekintza horretan egindako **ahalegina** eta ekintza horri eusten emandako denbora.

Beraz, motibazioak azaltzen du **zergatik** erabakitzen duen jendeak zerbait egitea, **zenbateko ahaleginaz** saiatuko diren horretan eta jardun hori **zenbat denboraz** eusteko prest egongo diren.

Hizkuntza bat ikasteko edota erabiltzeko motibazioa azaltzeko eredu asko dauden arren, niri, prozesuzko eredu iruditu zait bereziki interesgarria, hain zuzen ere **prozesuari begirako planteamendu batean oinarrituta** dagoelako. Horrek esan nahi du motibazioaren ikuskera dinamikoa daukala, **motibazioan denboran barrena gertatzen diren aldaketak** azaltzen baititu. Eta euskararen erabilera normalizatzea, hizkuntzaren jabeakuntza eta hizkuntza-ohituren aldaketa tarteko, oso prozesu luzea denez, ezinbestekoa ez ezik funtsezkoa izango da denboraren dimentsioa aintzat hartzea, eta ondorioz, denboran barrena gertatzen diren aldaketei adi-adi erreparatzea.

Hizkuntza-ohiturak aldatzea bezalako prozesu luze batez ari garenean, ezin da pentsatu motibazioa prozesu horren ezaugarri egonkorra dela, hilabeteetan beti bat irauten duena. Aitzitik, motibazioak gorabeherak izango ditu. Prozesuzko ereduaren atzean dagoen uste nagusia da motibazioak zenbait fase dituela:

- Lehenengo eta behin, **sortu** egin behar da. Hasierako fase horretako alderdiari **aukeratzeko motibazioa** dei diezaiokegu, sortutako motibazio horrek burutu beharko den helburu edo ataza aukeratzea baitakar. Fase honetan zera egin dezakegu: langileak helburuetara hurbildu –helburu lorgarriak finkatzen parte hartzera bultzatuz–, langileen arrakasta-itxaropenak neurtu eta aztertu; langileengan uste errealistak sortu.

- Bigarren, sortutako motibazio hori modu aktiboan **elikatu** eta babestu beharra dago kasuan kasuko ekintzak dirauen bitartean. Motibazioaren alderdi honi **motibazio eragilea** deitu izan zaio. Fase honetan zera egin dezakegu: ekintza bakoitzaren xedea eta erabilgarritasuna azaldu; arrakasta-ekintzak eta arrakasta-esperientziak ezagutzera eman; autorregulazioa landu eta bultzatu.
- Azkenik, hirugarren fasea dugu. Ekintza burutzearen ostekoa da eta **atzera begirako fasea** deritzo. Honetan, **egindako gauzen ebaluazioa** egiten du ikasleak. Atzera begirako fase honetan ikasleek nola prozesatzen dituzten izandako esperientziak, halako edo holako jarduerak egiteko egongo dira motibatuta etorkizunean. Fase honetan zera egin dezakegu: egozpenari lotutako faktoreak aztertu eta egozpen motibagarriak bultzatu; autokontzeptuari lotutako usteak aztertu.

## 2.8- Oinarrizko beste hainbat kontu

Azpiatal honetan aipatu nahi ditudanak oinarri teoriko baten gainean eraikitakoak ez diren arren, guztiz oinarrizkoak eta kontuan izan beharrekoak dira gisa honetako egitasmo bati ekiterakoan. Planaren arrakasta baldintzatuko duten bi alderdi dira, dinamizatzailea eta saioak garatuko direneko gela, hain zuzen ere.

### Dinamizatzailea

Motibazio-estrategiak ezin daitezke arrakastaz erabili "motibazio-hutsune" batean: motibazioa sortzeko saioek eragina izateko, aurretiko baldintza batzuk ezarri behar dira lehenago. Baldintza horietako batzuk dinamizatzailearekin estu loturik daude.

- ▶ Gogo-bizitasuna. Nortzuk izan dira ikas-prozesu batean murgildurik gaudela guregan eraginik handiena izan duten irakasleak? Eskuarlean zutenari buruzko gogo bizia erakutsi zutenak, zalantzarik gabe. Horixe egin beharko du dinamizatzaileak, gogo bizia erakutsi. Eredua ematea adibidea eman ez irakasteko metodo egokia baita oso. Adibide horrek motibazio-faktoreak eragin ditzake: ahalegintzea, jarrera positiboak eta gaiarekiko interesa.
- ▶ Langileen aurrerapenarekiko konpromisoa erakustea. Erakusten baldin baduzu konprometitua zaudela prozesuan egindako aurrerapenarekin, oso litekeena da haiek gauza bera egitea. Oso garrantzitsua da taldeko guztiak ohartzea zuri axola dizula. Langileak ere parte-hartzaile konprometituak balira bezala hartu behar ditugu, eta haien ahaleginari buruzko erreferentzia esplizituak egin.
- ▶ Dinamizatzailearen itzaropenak. Langileen aurrerapenarekiko konpromisoa hutsa ez da nahikoa. Behar bezain itzaropen handiak izan behar dituzu langileek lor dezaketenez. Bestela esanda, zuk zeuk sinesten baduzu parte-hartzaileek gauza handiak lor ditzaketela, oso litekeena da haiek horixe bera sinestea.
- ▶ Eskura egotea. Saio presentzialetatik kanpo ere, funtsezkoa da dinamizatzailea langileen eskura egotea, hainbat jardueren jarraipen jarraitua posta elektronikoz nahiz telefonoz egiteko edota lan-sailean hizkuntzarekin zerikusia duten elkarrizketak sortzen direnean – ezagutzaren nahiz erabileraren gainean–, haietan parte hartzeko modua izan dezan –zuzenean edo zeharka–.

### Saio presentzialak garatuko direneko lekua

Ohitura kontuez ari garen honetan, ez dugu ahaztu behar ekintza bat behin eta berriro garatu izanaren ondorioz sortzen den ohituraren osagaietako bat lekua dela, leku fisikoa, ekintza garatzen deneko espazioa alegia. Lotura hori hain da erabatekoa, ezen batetik, lekua ikuste hutsak ekintza dakarrela

gogora; eta bestetik, ekintza garatzerakoan ohiko lekuaren premia sumatzen dela. Neurri handiagoan edo txikiagoan, jakina.

Horiek horrela, aldaketa-prozesu bat abiatzerakoan erabaki gaitza daukagu hartu beharra lekuari dagokionez. Eta bi aukera ditugu:

- Langileen ohiko lekuan jarraitzea, departamentuan bertan alegia. Kasu honetan, betiko lekuak betiko ohiturak gogoraziko dizkie langileei inkontzienteki.
- Lekuz aldatu, eta espazio berri batean ekin hizkuntza-ohitura berriak sortzeko prozesuari. Kasu honetan, oso litekeena da ohitura berriak leku berriarekin lotzea, eta ohiko lan-espaziora itzultzean atzera lehengo ohituretara bueltatzea.

Erabilera planen barruan langileen euskararen ahozko erabilera areagotzeko egitasmo indibidualetan izan dudak esperientziak erakutsi didanaren arabera, egokiagoa da saio presentzialak langileen ohiko lan-espazioan garatzea, lekua aproposa bada behintzat. Eta bestela, alboko gelaren batean, ahalik eta hurbilen. Gainerakoan, nekezago lotzen du langileak hizkuntza-ohiturak aldatzeko jardun didaktikoa eguneroko lan-jardunarekin, eta ondorioz, eten moduko bat gertatzeko arriskua dago.



# **LASARTE-ORIAKO UDALEKO ESPERIENTZIA**

Aztergai izango dugun esperientzia Lasarte-Oriako Udaleko Diruzaintzako departamentuan gauzatutakoa da. Esperientzia pilotua izan da guretzat, esperimentutik asko izan duena.

Hona hemen departamentuaren argazkitxoa:

► Langileak:

Lanpostuaren izena	Dotazio kopurua	Lanpostuaren HE	Langileak egiaztaturiko HE
Kobrantzako teknikaria	1	3 HE	3 HE
Kobrantzako administraria	2	2 HE	2 HE (bi langileek)
Jakinarazlea	1	1 HE	2 HE

- Lekua: Jakinarazlea, administrari laguntzaileak eta administrariak bulego berean daude. Ondoan, manpara antzeko batek bereizita, teknikariaren bulegoa dago. Eta bulego horren aldamenean, arduradunarena.

Diruzaintzako departamentua atal elebidun izendatu genuen, 2002. urtean (E 2002), lehenengo erabilera planaren barruan. Horrek esan nahi du gutxieneko hizkuntzako baldintzak betetzen zituela inplementatu nahi genuen egitasmoari zegokionez:

- Atalburuak hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea –kasu honetan, 3.HE–.
- Langileen %80k gutxienez hizkuntza-eskakizuna egiaztatua izatea.

**Gure helburu nagusia departamentu horretako langileen lan-hizkuntzan eragitea zen, ahozko harreman formal eta informaletan nagusiki, euskararen erabilera areagotze aldera.** Eta jakin bagenekien, horretarako, haien hizkuntza-ohituretan eragin beharko genuela. Beraz, lehen fase honetan, eragin-esparrutik kanpo utziko ditugu Diruzaintzako langileek gainerako departamentuetako langileekin dituzten harremanak,

ez baita gure asmoa –oraingoz behintzat– harreman horietan sistematikoki eragitea.

### 3.1- Egitasmoaren nondik norakoak

Ahozko erabilera areagotzeko egitasmoetan kontuan izan beharrekoak aintzat harturik –arestian aipatu ditudanak, alegia–, 2003-2004 ikasturtearen bukaera aldera honela irudikatu nuen egitasmoa, ezaugarri hauexekin:

- ▶ Saio presentzialen bidez garatuko dut plana, horiexek izango dira ardatz nagusia. Bi ezaugarri nagusi izango dituzte: batetik, hizkuntza-portaeraren inguruan gogoeta eragitekoak izango dira; eta bestetik, benetako eta koherentziazko mintza-jardunak, lankide guztiak batera eta euskaraz gauzatuko direnak.
- ▶ Saioak ordu erdikoak izango dira, astean bat edo bi.
- ▶ Atazak, jarduerak eta ekintzak egingo ditugu saioetan eta saioetatik kanpo:
  - Ataza. Saioetan egin beharreko eginkizun sinplea.
  - Jarduera. Hainbat atazaz osatua.
  - Ekintza. Saioetatik kanpo egin beharreko eginkizuna.
- ▶ Helburu zehatz hauei begira egingo ditugu ataza, jarduera eta ekintzak:
  - Langileen euskarazko gaitasunari, hizkuntza-ohiturei eta jarrerari buruzko datuak biltzea.
  - Datu horiek aztertzea eta interpretatzea.

- Hasierako diagnostikoaren arabera, lortu nahi diren helburu zehatzak denon artean definitzea.
  - Denon artean, helburu horiek lortzeko ekintza-plan bat prestatzea.
  - Ahozko erabileraren eta hartutako konpromisoen betetze-mailaren jarraipena egitea.
  - Lan-esparruko gaiez hitz egitea.
  - Puri-purian dauden gaien inguruan mintzatzea –harreman informalean esparrua aztertzeko eta jorratzeko–.
  - Motibazio-estrategiak lantzea.
  - Eta abar.
- ▶ Dinamizatzailerik bat ezinbestekoa izango da, talde-dinamikan oinarriturik ataza, jardura eta ekintzen bidez jorratuko diren edukien lanketa bideratzeko. Gainera, bera arduratuko da egitasmoaren kudeaketa orokorraz.
  - ▶ Metodologiak parte-hartzailea beharko du izan.
  - ▶ Jardunbideak, berriz, programatua -nahiz eta, hasiera batean, izaera parte-hartzailearekin kontraesanetan dagoela irudi dezakeen-.
  - ▶ Bost hilabete inguruko iraupena izango du, 2005eko urtarriletik maiatzera bitartean.

### **3.2- Egitasmoa aurkeztea**

Egitasmoa aurkezteari arreta berezia eskaini nion, bereziki zaindu nahi bainuen komunikazio-fase hori. Funtsezkoa zen departamentuko arduradunak eta langileak egitasmoaren nondik norako nagusiez ongi jabetzea. Eta planari zer zeritzoten jakitea, eta ahal zela, haiengandik iradokizunen bat edo beste jasotzea.

Horretarako, hiru bilera antolatu nituen:

- ▶ Lehenengoan, neroni bildu nintzen departamentuko arduradunarekin. Egitasmoaren nondik norakoak azaltzeko, aurretiaz prestatutako informazio-orri bat erabili genuen (ikus *Ahozkoan eragiteko plana aurkezteko informazio-orria* I. ERANSKINEAN).
- ▶ Bigarrenean, arduraduna langileekin bildu zen, eta informazio-orri horretan oinarriturik egitasmoa azaldu eta haien iritziak jaso zituen.
- ▶ Hirugarrenean, denok bildu ginen. Proposamenari buruzko iritzia adierazi ondoren, erantzuteko ordua zen. Baiezkoa izan zen erantzuna, eta bere horretan onartu zuten egitasmoa, inolako aldaketa-proposamenik egin gabe.

### 3.3- Egitasmoa programazioan zehar

Lehen ere esana dut egitasmoa irudikatu nuenean ezinbestekotzat jo nuela jorratuko genuen jardunbidea programatua izatea. Eta halaxe egin nuen, zehatz-mehatz programatu. Atal honen helburua baina, ez da programazioa saioz saio aletzea, ez horixe. Jarduera nagusietan jarriko dugu arreta, eta horiexek izango ditugu aztergai. Nolanahi ere, programazio osoa ezagutzeko interesa duenak, badu horretarako aukerarik (ikus *Programazioa* II. ERANSKINEAN).

Programazioaren ezaugarri nagusia da ez dela itxia, baizik eta irekia eta dinamikoa. Horrek esan nahi du aldatuz joan dela jardueren emaitzen eta langileen inplikazioak eta jarrerak izan duen bilakaeraren arabera. Baldintza hori betetzea, irekia eta dinamikoa izatearena alegia, ezinbestekoa da metodologia parte-hartzailea izango bada. Horregatik nioen lehen jardunbidea programatua izatea eta metodologia parte-hartzailea ez direla ezaugarri kontrajarriak, atea zabalik baitago beti langileek egin ditzaketen proposamenei –eta jaso ahala programazioa txertatzen dira–.

Horiek argiturik, esan dezadan jarduera nagusiak egitasmoan landu ditudan hurrenkera berean aztertuko ditudala, plano orokor batetik plano zehatzago batera nola igaro garen erakusteko.

Halaber, jarduera bakoitzean jorratu ditugun alor nagusiei erreparatuko diegu (diagnosia, kontrola, motibazioa, jarrera eta portaera, ebaluazioa...). Jardueren eta jarduerotan landutako alorren ikuspegi orokor bat izateari komenigarri deritzodanez, taula batera ekarri ditut guztiak argazki panoramiko moduko bat eskaintze aldera.

Jarduera	Jorratu den alorra
1- Galdera-sortak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza- portaera</li> <li>• Jarrera</li> </ul>	- Diagnosia
2- Saioaren eragina neurtzen	- Hetero-kontrola eta autokontrola - Motibazio eragilea
3- Mintzagaia	- Erabilera
4- "Norberak izandako esperientzia hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahaleginean"	- Jarrera eta portaera - Erregulazioa eta autorregulazioa - Atzera begirako ebaluazioa.
5- Erabilera neurtzeko fitxak	- Ebaluazioa - Kontrola eta autokontrola

6- "Euskararen normalizazioaren pertzepzioa"	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarrera</li> <li>- Atzera begirako ebaluazioa</li> </ul>
7- "Polizia linguistikoa"	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ko-kontrola</li> <li>- Motibazio eragilea</li> </ul>
8- Harreman-sareak eta harremanetako edukiak zehaztea eta aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diagnostika</li> <li>- Erabileraren errepresentazioa</li> <li>- Ezagutza</li> </ul>
9- "Langileen usteak eta iritziak euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoen inguruan"	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atzera begirako ebaluazioa</li> <li>- Jarreraren eta portaeraren arteko koherentzia-maila</li> </ul>
10- "Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak"	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behaketa</li> <li>- Jarreraren eta portaeraren arteko koherentzia-maila</li> </ul>
11- Erabileraren bigarren neurketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diagnostika</li> <li>- Ebaluazioa</li> <li>- Erabileraren errepresentazioa</li> </ul>
12- Hurbiltzeko ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Motibazio eragilea</li> <li>- Erregulazioa eta autorregulazioa</li> <li>- Hetero-kontrola eta ko-kontrola</li> </ul>

Taularen eskuineko zutabean jaso ditudan alor guztiak lantzea ez nuen aurreikusia jarduera prestatzerakoan, ez behintzat

kasu guztietan. Hainbat alor lantzeko aukeraz eta komenigarritasunaz jarduera garatzen hasitakoan ohartu nintzen, aritzeak berak bistaratu baitzidan jarduera batzuen potentzialtasuna. Beste zenbaitetan, berriz, saio jakin batean egindakoari buruz gogoetan ari nintzela –bertan hartutako oharren gainean–, jabetu nintzen aurreikusitakoez gain beste alderdi batzuk ere jorratu genituela, ia oharkabean. Planaren bigarren fase batean, hori guztia modu planifikatu eta sistematikoagoan lantzeko modua izango dudalakoan nago.

Ekin diezaiodan orain jarduera nagusiak banan bana azaltzeari.

I	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>Galdera-sortak<sup>8</sup>:</b> - Hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-portaera	a- Jarrera Diagnostika

- ▶ Prozedura. Bi galdera-sorta bete beharko dituzte. Betetzen ari direla, aukera emango zaie sortzen zaizkien zalantzen inguruan galdetzeko edota galderen gainean iruzkinak egiteko.

### Hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-portaera

Galdera hauei erantzun behar izan zieten langileek:

1- *Nola hitz egiten zenuen lehen euskaraz? Eta orain?*

- *Oso Ongi (OO)*
- *Nahiko Ongi (NO)*
- *Erdizka (E)*

---

<sup>8</sup> Hasierako diagnostika egiteko erabilitako galdera-sortak III. ERANSKINEAN dituzu.

- Gaizki (G)
- Oso Gaizki (OG)

2- Zein hizkuntzatan egiten duzu lankideekin, bikote-lagunarekin, anai-arrebekin, seme-alabekin edota gurasoekin?

- (4)- la beti euskaraz
- (3)- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- (2)- Bietara
- (1)- Erdaraz euskaraz baino gehiago
- (0)- la beti erdaraz

Bigarren galderaren bidez, nire hasierako asmoa zen erabilera-esparru desberdinen arteko lotura aztertzea, jakiteko beste esparruetako erabileraren eta lanekoaren artean korrelaziorik ba ote zegoen. Geroago, ordea, egokiago iruditu zitzaidan arreta guztia lanekoan jartzea eta egitasmoa beste esparruetara zabaltzea gerorako uztea –planaren balizko bigarren faserako, agian–.

Langilea	Hizkuntza-tipologia <sup>9</sup>		Euskarako gaitasuna		Erabilera				
	Eusk.	Gazt	Lehen	Orain	Lanki-deak	Bikote-laguna	Anai-arrebak	Seme-alabak	Gurasoak
A	(B)(A) [H <sub>2</sub> ]	AB [H <sub>1</sub> ]	E	E	2	1	0	3	0
B	AB [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	NO	NO	1	0	4	4	4
C	A [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	E	E	2	0	2	2	4
D	(A) [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	G	G	1	0	-	0	-

<sup>9</sup> Hizkuntza-tipologiei buruzko informazioa nahi duenak jo dezala liburu honetara: SANCHEZ CARRION, J.M. "TXEPETX" (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría general de las lenguas*. Donostia.

E	(B) (A) [H <sub>2</sub> ]	AB [H <sub>1</sub> ]	E	E	1	0	0	0	0
F	AB [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	NO	NO	1	3	-	-	4
G	A(B) [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	NO	E	0	-	1	-	2

Hasierako diagnostiko horretan badira hainbat kontu, aipatzea merezi dutenak:

- ▶ Hizkuntza-tipologiaren zutabea neuk bete dut plana bukatutakoan, langileen hizkuntza-biografia osatu samarra neukanean. Datu horiek langileek aitortutako euskarako gaitasunari dagozkienekin alderatuz gero, langile batzuen kasuan behintzat, ez dago parekotasun handirik. B eta F langileei dagokienez adibidez, NO erantzun badute ere, beren gaitasuna OO erantzuteko modukoa dela esan beharrean nago, alegia, beren hizkuntza-tipologiarekin parekoago. C langilearekin ere, beste hainbeste gertatzen da. Nire ustez, badu NO erantzuteko adinako euskarako gaitasuna. Zer dela eta beren burua gaitasun errealaren azpitik kokatzeko joera hori? Zuhurtasunak eragindako portaera da nire ustez, gisa honetako plan baten aurrean zuhur jokatu nahiak eragindakoa, "ez dezadan erantzun OO, eta gero nire gabeziak agerian utzi" gisako pentsamendua alegia. Gure helburua erabileran eragitea zela argi utzi bagenuen ere, langileek hizkuntza-gaitasuna lantzearekin lotzen zuten plana, hizkuntza-eskakizunak egiaztatze prozesuak sortutako inertziaren eraginez edo.
- ▶ Hizkuntza-tipologia sendoena duten langileek (B eta F), lanean lankideenaren antzeko hizkuntza-portaera erakutsi badute ere, gainerako esparru batean baino gehiagotan erabilera handia edo oso handia dute.
- ▶ Euskarako gaitasunean atzera egin duela aitortu duen langileari (G) dagokio lankideekiko harremanetan erabilera-indizerik baxuena –erabilerak gaitasunean izan dezakeen eragin onuragarri edo kaltegarriaren erakusgarri garbia–.

## Jarrera

Jarreraren inguruko galdera-sortaren emaitzak hauek dira:

- (4)- *Guztiz ados*
- (3)- *Ados*
- (2)- *Zalantza*
- (1)- *Aurka*
- (0)- *Guztiz aurka*

<b>Galdera</b>	<b>Erantzuna (batez bestekoa)</b>
1- Lanean, lankideekin euskaraz egin nahi nuke	3
2- Gosaritan, lankideekin euskaraz egin nahi nuke	3
3- Lan-hizkuntza (zerbitzu-hizkuntzaz gain) euskara izan dadin, zerbait egin nahi dut.	3
4- Harreman informaletako hizkuntza euskara izan dadin, zerbait egin nahi dut	3
5- Administrazioan, denek jakin beharko lukete euskaraz	3
6- Administrazioan, denek hitz egin beharko lukete euskaraz	3
7- Gure departamentuan euskararen erabilera bultzatzeko, nahikoa da guk hala nahi izatea, ez dago inolako planen beharrik.	1

Horiek horrela, esan dezakegu hauek direla departamentuko langileen jarreraren ezaugarri nagusiak:

- ▶ Langileek euskaraz egiteko borondate argia erakutsi dute (1. eta 2. galderak).
- ▶ Euskararen erabilera areagotzeko (lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza gisa), zerbait egitearekin ados daude (3. eta 4. galderak).
- ▶ Administrazioko langile guztiek euskara jakin eta erabili behar dutelako adierazpenarekin ados daude (5. eta 6. galderak).
- ▶ Euskararen erabilera areagotzeko, plan bat abian jartzea ezinbestekotzat jotzen dute (7. galdera).

Jarrerari dagokionez, hasierako egoera egokia zen oso planari ekiteko. Beraz, jarreraren bilakaera alde batera uztea komeni ez den arren, oinarri sendoa genuela aprobetxatuz esan dezakegu zuzenean portaeraren alorra lantzen hasteko moduko egoeran geundela.

2	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>Saioen eragina neurtzen</b>	a- Autokontrola eta hetero-kontrola b- Motibazio eragilea

- ▶ Prozedura. Saioaren hasieran, aurreko saioari buruzko galdekizun labur bati erantzun beharko diote langileek. Horretan ari direla, aukera emango zaie sortzen zaizkien zalantzen inguruan galdetzeko edota galderen gainean iruzkinak egiteko.
- ▶ Hauxe izan zen programazioan aldaketak txertatzeko beharra sumatu nuen lehenengo aldia –hasi berritan, alajainkoa! –, horrelako neurketa goiztiarrik egitea ez bainuen aurreikusia<sup>10</sup>. Funtsezkoa iruditu zitzaidan saioen eta eguneroko lan-jardunaren arteko lotura lehenbailehen finkatzea, eta planaren ezaugarri hori langileei helaraztea.
- ▶ Autokontrola eta hetero-kontrola. Bakoitzak bere erabileraren kontrola egiteak (autokontrola) eta erabilera horren berri dinamizatzaileari eta taldekideei emateak (hetero-kontrola) planaren ikuspegi kolektiboa indartzen du, euskararen erabilera areagotzeko hartutako erabaki kolektiboa ageriago geratzen baita. Eta finkatutako helburuak eta lor litezkeenak bihurtzen dira hizpide, bakoitzarenak eta taldearenak. Horrek guztiak elikatu egiten du motibazioa, eta motibazio eragile bihurtzen.

---

<sup>10</sup> Erabilitako galdera-sortak IV. ERANSKINEAN dituzu.

<b>3</b>	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>Mintzagaia</b>	a- Erabilera

- ▶ Prozedura. Dinimizatzaileak saiora eramandako irakurgai labur bat irakurri eta huraxe izango dute hizpide. Aurrerantzean, komenigarria izango da irakurgaia langileek berek aukeratzea, hartara gehiago inplikaturako baitira.
- ▶ Ataza honen helburua xumea da oso: denok batera, interesa piztu dezakeen gai baten inguruan aritzea. Gaiak, zuzenean edo zeharka, lotura izango du eguneroko lan-jardunarekin.
- ▶ Bere xumean, teorizaziotik performantziara jauzi egiteko aukera paregabea emango digu ekintza honek, langileek euskaraz adierazi beharko baitituzte gaiaren inguruko iritzi eta usteak, bai eta ordura arte harremanak gaztelaniaz gauzatzen zituzten lankideekin ari direnean ere. Hizkuntza-ohitura zaharrak apurtzeko lehenengo saio kontzientea da, denon aurrean egina, gainera.
- ▶ Hasiera denez, oso normala da -gaiaren inguruko eztabaida pizten denetan- euskaratik gaztelaniara pasatzea eta atzera euskarara itzultzea. Alternantzia horrek bidea ematen du hizkuntza-mekanismoen nondik norakoez hitz egiteko eta horren inguruan langileek dituzten iritzi eta usteak ezagutzeko:
  - Zergatik igarotzen diren hizkuntza batetik bestera; alegia, gaiaren, egoeraren, solaskidearen edo beste aldagairen baten arabera egiten ote duten.

- Zein hizkuntza erabili solaskide jakin batek erabakitzen ote duen –atalburuak, adibidez– , edo denon artean adostutako zerbait ote den.
- Hizkuntza aukeratzekoan hiztunaren hizkuntza-tipologia erabakigarria ote den.
- Eta abar.

4	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>"Norberak izandako esperientzia hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahaleginean"</b>	a- Jarrera eta portaera b- Autorregulazioa c- Atzera begirako autoebaluazioa: egozpenak

- ▶ Prozedura. Norberaren esperientziaren alderdirik aipagarrienak idatziz laburtu behar dituzte langileek (ikus jardueraren fitxa V. ERANSKINEAN). Adierazpenik esanguratsuenak bildu eta zein norena den esan gabe aurkeztuko dizkiet ondoren, denon artean aztertzeko eta ondorioak ateratzeko.
- ▶ Jarrera eta portaera. Hizkuntza-ohituren aldaketen aurrean izan dituzten jarreretan eta portaeretan sakontzeko aukera izan dugu, eta hasierako galdera-sortan jasotako informazioa areagotzekoa –biziki interesgarria iruditu zitzaien besteek egoera errealetan izan dituzten jarrerak eta portaerak ezagutzea–. Bakar batek ere ez du aipatu aurretik izandako esperientziarik, den-denak honako hau izan dute hizpide, eta haien portaeran izan duen eragina aipatu dute nagusiki. Azpimarratzekoa da, halaber, zazpi langiletik lauk beste erabilera-esparruen aipua egin dutela, laneko harremanetako hizkuntza-ohiturak aldatzen hasteak lagunarteko hizkuntza-portaeran ere eragin duela adieraziz –horra hor beste erabilera-esparruak ere kontuan izateko beste arrazoi bat, lotura argia baita–.
- ▶ Autorregulazioa. Atazari hasiera saioan bertan eman bagenion ere, bukatu etxean bukatu behar zuten. Asmoa zen langileen motibazioa eta inplikazio-maila zenbaterainokoa zen neurtzea Faktore gehiagok eragiten duten arren, pentsatzekoa da saioan hasitako lanei etxean ekiten dienak motibazio-maila handi samarra duela, eta gerora, autorregulazioaren bidean urratsak egiten

hasteko gai izango dela –10. jardueran, "*Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak*" izenekoan, aintzat hartu beharreko kontua da horrako hori-. Emaidza, ordea, kaskarra izan zen. Bi langilek baino ez zuten ataza etxean bukatu. Horrenbestez, argi geratu zen langileak ez zirela gai, besterik gabe, horretarako trebatu gabe alegia, autorregulazioari ekiteko; eta beharrezkoa izango zela hetero-erregulazioaren eta ko-erregulazioaren bidez erregulaziorako tresnak eskaini eta horiek erabiltzeko prestatzea.


- ▶ Atzera begirako autoebaluazioa. Ohituren aldaketan izandako esperientzia aztergai izanik, atzera begirako autoebaluazioa egin behar izan zuten langileek. Izandako esperientzien balorazioa oso modu orokorrean egin zuten, ez zen ezein ahalegin planifikaturen arrastorik agertu. Definizioz eza horretan ezinezkoa gertatu zen egozpenen gaineko azterketarik egitea. Horrek zerbait erakutsi digu. Alegia, funtsezkoa dela hizkuntza-portaeraren gaineko behaketa eta gogoeta bideratuko duten ildoak finkatzea, hurrengo ebaluazio baterako oinarri sendoak izango baitira.

5	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>Erabilera neurtzeko fitxak</b>	a- Ebaluazioa b- Autokontrola eta hetero-kontrola

- ▶ Prozedura. Eguneroko erabileraren estimazioa egin behar du langileak lan-jardunaren bukaeran, eta erabilera-fitxan ehunekotan adierazi (ikus erabilera-fitxa VI. ERANSKINEAN). Hilabete bakoitzeko fitxa bana emango zaie, hilabete hasieran, aurreko hilabetekoa jasotzearekin batera.
- ▶ Ebaluazioa. Fitxetan jasotako indizeak berariaz prestatutako aplikazio batean sartuko ditugunez, langile bakoitzaren erabileraren bilakaera jakiteko aukera izango dugu, eta grafikoen bidez eman: hilabetekoa, urtekoa eta urtez urtekoa. Gure ahaleginaren emaitza neurtzeko tresna paregabea da, ebaluazio sumatiboa egitea ahalbidetuko baitigu. Horrez gain, erabileran gertatu diren gorabeheretan zein faktore nagusik eragin duten aztertu ahal izango dugu, baita abian jarriz goazen ekintzen intzidentzia-maila ere<sup>11</sup>. Aplikazioak sortzen dituen grafikoak ezin izan ditugu hona aldatu. Horien ordez, berri batzuk sortu ditugu –eguneroko erabilera-indizea oinarri hartu beharrean hileko batez bestekoa hartuz– Esan gabe doa eguneroko erabilera-indizean oinarriturik egindakoek zehaztasun handiagoa eskaintzen digutela ebaluazioa egiterakoan.

---

<sup>11</sup> Aplikazioa erabilgarri izaterako maiatza iritsia zen. Hori dela eta, ezin izan genuen nahi adina ustiatu.



Oharra: D langileak, aldi baterako kontratua zeukanez, martxoaren erdialderako bukatua zuen bere lanaldia. Hori dela eta, grafikoan ez sartzea erabaki dut.

Langilea	Hizkuntza-tipologia	
	Euskara	Gaztelani
A langilea	(B)(A) [H <sub>2</sub> ]	AB (H <sub>1</sub> )
B langilea	AB [H <sub>1</sub> ]	AB (H <sub>2</sub> )
C langilea	A [H <sub>1</sub> ]	AB (H <sub>2</sub> )
E langilea	(B) (A) [H <sub>2</sub> ]	AB (H <sub>1</sub> )
F langilea	AB [H <sub>1</sub> ]	AB (H <sub>2</sub> )
G langilea	A(B) [H <sub>1</sub> ]	AB (H <sub>2</sub> )

- ▶ Ikus dezagun hizkuntza-tipologiaren eta erabilera-indizeen artean dagoen lotura:
  - Erabilera-indize baxua dela eta, G langilea dugu nabarmenena –euskarari dagokionez, A (B) [H<sub>1</sub>] tipologiakoa–. Hizkuntza-erabilerako galdersortan ere, berarena izan zen laneko esparruan erabilera-indize baxuena. Dena den, langile honen erabileraren interpretazio zuzen samarra egitekotan, grafiko honetako datuez gain, komenigarria da bikotekako erabileraren neurketako emaitzen inguruan egindako iruzkina kontuan izatea (ikus zer diodan kontu honetaz 4.4 azpiatalaren bukaeran).

- Erabilera-indize altua dela eta, B, C eta F langileen kasuak dira azpimarragarrienak. Euskarari dagokionez, lehenengo biak AB [H<sub>1</sub>] tipologiakoak dira, eta hirugarrena, A [H<sub>1</sub>] tipologiakoa.
  - Euskarari dagokionez (B) (A) [H<sub>2</sub>] tipologiakoak diren A eta E langileen kasuan, tipologia ahulagokoak izanagatik, erabilera-indizea ez da batere makala.
  - Laburbilduz, esan dezakegu, oro har, zenbat eta tipologia sendoagoa orduan eta altuagoa dela erabilera-indizea; salbuespenak salbuespen, jakina – G langilearena, hain zuzen–.
- ▶ Autokontrola eta hetero-kontrola. Fitxa langileak berak bete behar duenez, erabileraren gaineko kontrola egiteko eskatzen zaio (autokontrola), eta jakina, erabileraren gaineko kontzientzia areagotuko dio horrek. Bestalde, dinamizatzailleak eta lankideek ere partaide bakoitzak aitortzen duen erabileraren berri izango dutenez, nolabait, kanpoko kontrol-sistema bat ezartzen da, eta akuilatze-funtzioa beteko du (hetero-kontrola).

6	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>"Euskararen normalizazioaren pertzepzioa"</b>	a- Jarrera b- Atzera begirako autoebaluazioa

- ▶ Prozedura. Aukeran dituzten marrazkien artean, haien ustez euskararen normalizazio-prozesua egokien irudikatzen duena hautatu behar dute, eta hautaketaren zergatiak azaldu (ikus jardueraren fitxa VII. ERANSKINEAN).
- ▶ Loturarik eta arrazoibiderik esanguratsuenak bildu eta egilearen izenik adierazi gabe aurkeztu nizkien, denon artean aztertzeko. Oraingoan ere, biziki interesgarria iruditu zitzaizen gainerakoek uste eta iritziak ezagutzea.
- ▶ Jarrera. Hautuaren zergatiak azaltzerakoan, gai hauek izan zituzten hizpide: hitz egin nahia/beharra, hitz egitera behartzea, euskara ikasteko prozesuaren zailtasuna, tipologia desberdineko hiztunek elkarri laguntzearen garrantzia, hizkuntzaganako atxikimendua, euskararen kalitatea, eta abar. Nik, ondoren, hainbat galdera prestatu nituen azalpenetan oinarriturik, normalizazioaren gainean zituzten sinesteetan sakontze aldera, eta orri batean bildurik elkarrizketa baterako gidoi gisa aurkeztu nizkien, azalpen bakoitza norena zen adierazi gabe (ikus gidioa VII. ERANSKINEAN). Susmoa nuen uste eta iritziak modu anonimoan aurkeztuz gero gehiago animatuko zirela haien gaineko gogoeta egitera, komunikatiboago agertuko zirela. Halaxe gertatu zen.
- ▶ Atzera begirako autoebaluazioa. Euskararen normalizazioa gogoan harturik atzera begiratzean, euskara ikasteko edota hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuaren zailtasuna izan da gehien aipatu duten kontua. Haien ustez, zailtasun

horrek zera dakar, alegia, prozesua behin eta berriz abiatu eta etetea. Horren arrazoia motibazioa lantzeko moduan aurki dezakegu, izan ere, gehienetan motibazioaren lehenengo fasea baino ez baita lantzen, eta beste biak, berriz, alde batera uzten dira (motibazioaren faseei buruzko zehaztasun gehiago nahi izanez gero jo ezazu 2.7 azpiatalera).

7	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>"Polizia linguistikoarena"</b>	a- Ko-kontrola b- Motibazio eragilea

- ▶ Prozedura. "Polizia linguistiko" baten rola hartzean datza ekintza honen funtsa. Rol hori betetzen duenak lankideen hizkuntza-portaera berria zainduko du, eta lehengo ohituretara joz gero, "kargu hartuko" die. "Kargu-hartze" horien berri laburra horretarako prestatutako fitxa batean jasoko dute (ikus fitxa VIII. ERANSKINEAN).
- ▶ Langileek berek proposatutakoa da ekintza hau, erabilera-fitxak betetzen hasi eta egun gutxitara. Erabilera-fitxak betetzearekin batera, arestian esan dudanez, nolabaiteko kontrol-sistema bat ezarria gelditzen da, eta horren eraginez, kontrol hori "kudeatzeko" figura sortu zen.
- ▶ Nik, printzipioz, euskararen erabilera ez nuen inola ere identifikatu nahi derrigortze-kutsua izan zezakeen ezerekin. Langileen proposamena izan zenez, ordea, onartu beharra neukan baldin eta haien parte-hartzea bultzatzeko asmoa banuen.
- ▶ Nolanahi ere, denon artean ekintzari forma ematea proposatu nien, gehixeago definitzea alegia. Azkenean zera erabaki genuen, egutegi bat zehaztea eta "zaintze-aldi" bakoitzean egindako kargu-hartzeak fitxa batean jasotzea.
- ▶ Ko-kontrola. Badirudi, hizkuntza-ohitura berriei eusteko elkar bultzatzea, babestea eta "ikuskatzea" ezinbestekoak direla. Euskararen erabilera areagotzeko helburuaren aurrean aitortutako jarrera eta haren araberako portaeraren arteko koherentzia-maila askoz ere handiagoa da hartutako konpromisoa etengabe gogorarazten badizute zurekin

batera egitasmoan inplikaturak daudenek. Erabilerak nabarmen egin zuen gora ekintza honek iraun zuen bitartean.

- ▶ Motibazio eragilea. Helburua betetzen lagunduko diguten ekintzak proposatuz egitasmoan parte hartzeak motibazioa pizten du, horretan zalantzarik ez dago. Kasu honetan, gainera, ekintza horren bidez autogestiozko portaera bat sustatzen da, ezarian-ezarian langileak ohitura aldaketan arduradun nagusi izatera bultzatuko dituenak.

8	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>Harreman-sareak eta harremanetako edukiak zehaztea eta aztertzea</b>	a- Diagnostika b- Erabileraren errepresentazioa c- Ezagutza

- ▶ Prozedura. Helburu nagusia mintzagramak osatzea da, harremanen maiztasunari eta harremanetan landutako eduki nagusiei bereziki erreparatuz. Taldearen baitako harremanen adierazpide grafikoa da mintzagrama (ikus fitxa IX. ERANSKINEAN).
- ▶ Erabileraren errepresentazioa. Langile bakoitzak osatutako mintzagrama -langilea bera harreman-sareko erdigune gisa kokatuz- beste langileek osatutakoarekin kontrastatzen hasi orduko, aitortutako erabileraren “egiazkotasunari” buruzko eztabaida pizten da. Bi langileek osatzen duten bikoteko erabileraren datu aitortuak bat ez datozenean, agerian geratzen da langile bakoitzak benetako erabilera baino gehiago erabilera horretaz berak egin duen errepresentazioan oinarritu dela. Bikoteko erabilerari buruzko estimazioetan eman daitekeen disonantziak erabileraren alderdi ezberdinetan sakontzeko aukera ematen du –hizkuntza aukeratzerakoan egiten den oharkabeko negoziazioa, behaketak duen garrantzia hizkuntza-mekanismoez jabetzeko orduan, eta abar–, eta hurrengo batean, langileek zorrotzago jokatuko dute zeregin horretan –planak aurrera egin ahala, gero eta adostasun handiagoa zegoen bikotekideen artean aitortutako erabilera-indizeari zegokionez–.
- ▶ Harremanak nagusiki bikoteka edota azpimultzotan gauzatzen badira, errazagoa da haietan eragitea. Zenbat eta zehaztapen-maila handiagoa izan harremanak deskribatzerakoan orduan eta eraginkorragoa izango da prestaturiko interbentzio-modua. Langileek emandako

informazioaren arabera, ordea, harremanak ez dira nagusiki azpimultzotan gauzatzen, bi edo hiru lankide jakinen artean alegia, denen artean baizik. Beraz, talde osoa izango da unitatea; beraz, ezin izan nuen azpimultzorik bereizi.

- ▶ Harremanetan lantzen diren edukiei dagokienez, ez dut edukia-hizkuntza lotura argirik detektatu –nire asmoa baitzen aztertzea ea eduki jakin baten gainean jarduteak hizkuntza-hautaketan eraginik ba ote zuen–.
- ▶ Ezagutza. Ezagutzan aitortu zuten hutsune bakarra, haien ustez lantzea merezi zuena, lexikoaren arlokoa zen. Bi lan egin genituen. Bata, erabiltzen dituzten euskarazko hitz teknikoekin departamenturako hiztegitxo batua osatzea, aurrerantzean denek erabiliko dutena. Eta bestea, oraindik gaztelaniaz erabiltzen dituzten hitz teknikoen zerrenda egitea, ondoren euskarazko ordaina prestatu eta hiztegitxoan txertatzeko.

9	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>"Langileen usteak eta iritziak euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoaren inguruan"</b>	a- Atzera begirako ebaluazioa b- Jarreraren eta portaeraren arteko koherentzia-maila.

- ▶ Prozedura. Langileek hiru galderari erantzun beharko diote bat-batean. Galderak planaren alde on nahiz txarrei eta beraien hizkuntza-portaera berriari buruzkoak dira. Hauexek dira egindako galderak:

- 1- Zuen departamentuan euskararen erabilera bultzatzeko plana martxan jarri izanari zer alde on edo abantaila ikusten dizkiozu?
- 2- Zuen departamentuan euskararen erabilera bultzatzeko plana martxan jarri izanari zer alde txar edo eragozpen ikusten dizkiozu?
- 3- Zure hizkuntza-ohiturak aldatzeko egindako ahaleginari dagokionez, zer nota jarriko zenioke zeure buruari?

- ▶ Atzera begirako ebaluazioa. Langileen jarrera positiboa, inplikazioa eta departamentuko giro ona ikusirik, pentsatzekoa zen alde on gehiago ikusiko zizkietela planari txarrak baino. Hori horrela, nire asmoa zen langileak alde on horiek esplizitatzera bultzatzea, eta atzera begirako ebaluazioa egiterakoan, lorpen gisa sailka daitezkeen alde onak egozpen motibagarriak egiteko oinarritzat hartzea. Hona hemen aipatu zituzten alde onen artetik azpimarragarrienak:

- Departamentuko langileak euskaraz aritzeak herritarrak Administrazioari buruz duen ikuspuntua aldatu dezake, eta hartara, errazago egingo zaio herritarrari lehenengo hitza euskaraz egitea.

- Jarreraren izandako aldaketa, euskara gehiago erabiltzearen aldekoa.

Alde txarrik ere aipatu zuten, gutxiago ordea:

- Denbora gutxiegi erabili dugu "kontzientziatzen".
  - Saio presentzialak zituzten egunetan indar handiarekin hasten ziren, baina denborak aurrera egin ahala "kemena" galtzen hasten omen ziren.
- Jarreraren eta portaeraren arteko koherentzia-maila. Nork bere buruari nota jartzeak hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuaren nolakoaz kontzientzia handiagoa hartzen lagundu ez ezik egindako ahaleginaren zenbatekoaz gogoeta egitera bultzatzen du langilea. Denek onartu zuten prozesua nekeza zela eta ahaleginak egiten ari zirela. Gainera, emaitza positiboak ikusirik, gogotsu jarraitzeko gauza sentitzen zirela –egozpen motibagarriak eginez, emaitza positibo horiek egindako ahaleginaren ondorio zuzen gisa hartzea zen helburua–.

10	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>"Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak"</b>	a- Behaketa b- Jarreraren eta portaeraren arteko koherentzia-maila c- Motibazio eragilea

- ▶ Jarduera honen xedea da finkatu ditugun helburuetara hurbiltzeko nahiz urruntzeko ditugun portaerak identifikatzea eta aztertzea. Ondoren, helburuetara iristeko zein portaera indartu eta zein ezabatu beharko dugun erabaki, eta horren araberako ekintza-plan bat zehaztuko dugu (ikus *Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak* unitate didaktikoa X. ERANSKINEAN).
- ▶ Hauxe da jardueraren oinarri teorikoa: Jarreraren gaineko baieztapenak iragarpenak dira. Norbaiten jarreraren gaineko baieztapena egiten dugun guztietan, haren etorkizuneko portaerari gurzko iragarpena egiten ari gara beraren iraganeko portaeraren behaketan oinarrituta. Alegia, orain arte modu jakin batean jokatu izan duenez, pentsatzekoa da etorkizunean ere antzera jokatzeko (Mager 2003).
- ▶ Norberaren portaeraren gaineko gogoeta sakona egiteko eskatzen dio jarduera honek parte-hartzaileari. Gogoeta horrek, gainera, geroko behaketan izan beharko luke jarraibidea, eta atzera gogoetari ekin.
- ▶ Jarduera honen bidez zehaztapen-mailarik handienera iritsi ginen. Parte-hartzaileei izugarri kosta zitzaien eguneroko portaera ekintza xumeetan xehatzea. Halatsu izan zitekeelako susmoa neukanez, neronek prestatutako zerrenda bat neukan, banatzeko asmoa nuena parte-hartzaileak jarduerari ekiteko adorea galtzen hasiz gero.

- ▶ Jarreraren eta portaeraren arteko koherentzia-maila. Eguneroko portaera ekintza xumeetan xehatuz gero, askoz ere errazago ikusten da jarreraren eta portaeraren arteko koherentzia-maila zenbaterainokoa den. Izan ere, berehala detektatzen dira hutsuneak. Behin gabeziak identifikatutakoan, hurrengo urratsa horiek gainditzeko ekintzen zerrenda prestatzea da; hurbiltzeko ekintzen plana, alegia.
- ▶ Motibazio eragilea. Zerrenda egin ondoren oso argi ikusten da hurbiltzeko ekintzei modu planifikatuan ekitea dela arrakastarako gakoetako bat. Horixe izango da, beraz, helburu nagusira iristeko ildo estrategikoa. Hurbiltzeko ekintzen erabilgarritasun esplizituak motibatu egingo ditu, zalantzarik gabe, parte-hartzaileak.

II	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>Erabileraren bigarren neurketa</b>	a- Diagnosia b- Ebaluazioa c- Erabileraren errepresentazioa

- ▶ Prozedura. Erabileraren neurketa egiteko Kuadrillategi egitasmoan erabili duten sistema bera erabili dut (ikus erabilera jasotzeko taulak XI. ERANSKINEAN). Langileek galdera honi erantzun behar diote, "*Nola egiten duzue elkarrekin?*", eta erantzunen aukera hauxe da:

- 4) Ia beti euskaraz
- 3) Euskaraz erdaraz baino gehiago
- 2) Bietara
- 1) Erdaraz euskaraz baino gehiago
- 0) Ia beti erdaraz

- ▶ Langileek erantzundakoarekin, banakako, bikotekako eta lan-saileko erabileraren indizeak atera ahal izan ditut.
- ▶ Neurketa hau saioan bertan egiten da, eta egitasmoan zehar hiru aldiz: hasieran, erdialdean eta bukaeran.
- ▶ Ebaluazioa. Bigarren eta hirugarren neurketa-aldietan, aurrekoetako datuak ere eskura dauzkagunez, diagnostikoa egiteaz gain erabileraren bilakaeraren berri jakiteko aukera ere izan dugu (datu guztiak 4.4 azpiatalean dituzu).
- ▶ Erabileraren errepresentazioa. Mintzagramak osatzerakoan gertatu zitzaigun bezalaxe, oraingoan ere erabileraren errepresentazioarekin egin genuen topo. Erabilera-datu aitortuak tauletan bildu eta hurrengo saioan langile guztiei aurkeztu nizkienez eta norberarenak besteenekin kontrastatzeko aukera izan zutenez, orduantxe konturatu ziren erabilera erreal baino gehiago erabilera horretaz norberak egiten duen errepresentazioa dela aitortzen dena.

Joko handia ematen du kontu horrek, zeren eta bikotekako erabilerari dagokionez adostasun batera iritsi nahian, aurreko egunetako erabilera-egoeren xehetasunak aipatu eta aztertzen dituzte. Informazio hori guztia hurrengo saioetarako aztergai ezin egokiagoa izaten da maiz.

12	Ataza / Jarduera /Ekintza	Jorratutako alorrak
	<b>"Hurbiltzeko ekintzak"</b>	a- Motibazio eragilea b- Erregulazioa eta autorregulazioa c- Ko-kontrola eta hetero-kontrola

- ▶ Prozedura. *"Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak"* jardueraren helburu nagusia zen denon artean hurbiltzeko ekintzen zerrenda prestatzea –aitortu beharra daukat ekintzetako asko neuk zuzenean nahiz zeharka proposatutakoak zirela–. Ondoren, zerrenda horretan oinarrituta, ekintza horien egingarritasuna aztertu eta behin betiko ekintza-plana zehaztea da eginkizuna.
- ▶ Ekintza horiek hurrenkera jakin batean jaso genituen, errazenetik zailenera. Irizpide horren arabera, neronek zehaztu nuen hurrenkera. Gainerako kontuak –data, maiztasuna eta iraupena– denon artean erabaki genituen, eta zenbaitetan, emaitzen arabera aldatu ere bai.
- ▶ Motibazio eragilea. Denon artean prestatutako ekintza-plan bat abiaraztea erronka berri bezain handia zen. Kitzikagarria. Zenbait ekintza, esate baterako norberaren agendan mezu "gogorazle" periodiko bat jartzea eta elkarri atsotitz motibagarri eta "gogorazleak" bidaltzea, funts eta balio gutxikoak iruditu zitzaizkielakoan nago. Baina huraxe zen jardunbide berria, ekintza haiek abian jarri eta emaitzak neurtzea.
- ▶ Erregulazioa eta autorregulazioa. Batetik, ekintza bakoitzaren emaitzak azterturik, dinamizatzailerak aukera izango du hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuan erabilitako prozedurak parte-hartzaileen beharretara egokitzeko, hau da, prozesua erregulatzeko. Bestetik, parte-hartzaileak sistema propio bat eratzeke modua izango

du<sup>12</sup>, burututako ekintzen ebaluazioa eginez hutsuneak eta indarguneak detektatuz eta prozesua bere premia eta eragozpenen arabera autorregulatuz

- ▶ Ko-kontrola eta hetero-kontrola. Ekintzetako batzuen ezaugarria da egindako lanaren emaitza lankideei edota dinamizatzaileari posta elektronikoz bidaltzea. Horrela, zeharka bada ere, nolabaiteko kontrola ezartzen diote elkarri. Arestian esan dudanez, "kontrolpean egoteak" areagotu egiten du parte-hartzailearen inplikazio-maila. Banaka garatu beharreko ekintzetan eta emaitza besterenganatzen ez denetan, kanpoko kontrolik ez dagoenez, maiz gertatzen da motibazioak behera egitea.

---

▶ <sup>12</sup> Erregulazioa nahiz autorregulazioa, erretroaktiboa edo proaktiboa izan daitezke. Erretroaktiboan, ebaluazioa egin ondoren, antzemandako hutsuneak sendotzeko jarduerak programatzen dira. Proaktiboan, berriz, hutsune posibleak gaitzera bideratutako jarduerak aurreikusten dira.

# **EGITASMOAREN EBALUAZIOA**

Honako informazio-iturri hauetan oinarritu naiz egitasmoaren ebaluazioa egiteko:

- Saioetan egindako behaketak eta saioen ondoko gogoetak.
- Parte-hartzaileek hainbat saioen bukaeran egindako ebaluazioa, ahozkoa nahiz idatzizkoa.
- Egitasmoaren bukaerako ebaluazioa.

#### **4.1.- Hainbat datu**

- Hasi: 2005-01-11 / Bukatu: 2005-05-31
- Saio-kopurua: 38 saio, ordu erdikoak.
- Asistentzia (batez bestekoa): %96

#### **4.2.- Ataza, jarduera eta ekintza nagusien balorazioa**

Ikasturte amaierako ebaluazioan, langileek honela baloratu dituzte egitasmoan zehar landu ditugun ekintza eta jarduera nagusiak:

- 1- Eskasa
- 2- Hainbestekoa
- 3- Handia

Ekintzak eta jarduerak	Eraginkortasun a (batez bestekoa)	Parte-hartzea (batez bestekoa)
a- Euskararen normalizazioaren pertzepzioa	2,2	2
b- Erabilera neurtzeko fitxak	2,2	2
c- Lexikoa lantzea	1,8	1,5
d- "Polizia linguistikoarena"	2,4	2,3
e- Norberaren ordenagailuan mezu periodiko bat iartzea	1,6	1,6
f- Elkarri atsotitzak bidaltzea	1,6	2
g- Erabilerari buruzko estimazioa eta iruzkina	1,8	2
h- Mintzagaia	2,2	2,3

Oharra: c, e, f eta g ekintzak ezezagunak egingo zaizkizu, ez baitzeuden "3.3.- *Egitasmoa programazioan zehar* " azpiataleko jardueren artean. Azpiatal bereko 12. jardueraren barruan, "*Hurbiltzeko ekintzak*" izenekoan, denon artean adostutako ekintza-planeko ekintzetako batzuk dituzu horako horiek (ekintzoi buruzko azalpen laburra X. ERANSKINEKO azken orrian duzu, "*Hurbiltzeko ekintzen zerrenda*" izenekoan).

Eraginkortasuna:

- ▶ **Eraginkorrenzat jo duten ekintza**, "Polizia linguistikoarena", **taldean egiteko planteatua** da, eta polizia linguistikoarena egiten duenak besteen erabilera kontrolatzean datza, nagusiki (ko-kontrola eta motibazio eragilea)<sup>13</sup>.
- ▶ **Puntuaziorik altuena jaso duten hurrengo hiruren artean**, bi (*Euskararen normalizazioaren pertzepzioa* eta

---

<sup>13</sup> Ekintza, ataza eta jardueri buruzko argibide eta iruzkinak 3.3 *Egitasmoa programazioan zehar* atalean dituzu.

*Irakurritakoaren inguruko elkarrizketa*) **taldean garatutakoak** dira, eta hirugarrena (*Erabilera neurtzeko fitxak*), **dinamizatzaileari eman beharrekoa** (hetero-kontrola).

Parte-hartzea:

- ▶ **Parte-hartzerik handiena izan dutenak taldean garatutakoak dira**, eta horietako bat (*Polizia linguistikoarena*) beraiek proposatutakoa –helburuak eta ekintzak proposatzerakoan langileek parte hartzeak inplikazioan duen garrantzia agerian uzten du–.
- ▶ **Bigarren geratu direnen artean**, bat (*Euskararen normalizazioaren pertzepzioa*) taldean garatutakoa da, eta beste hirurak (*Erabilera neurtzeko fitxak, Elkarri atsotitzak bidaltzea eta Erabilerari buruzko estimazioa eta iruzkina*) banaka garatu diren arren, **hartaile jakin bat dute**; lehenengoak, dinamizatzailea, eta beste biek, berriz, dinamizatzaileak eta lankideak (hetero-kontrola).

### 4.3.- Langileen jarrera, usteak eta ahaleginaren nahiz emaitzen balorazioa

Hona hemen egitasmoan zehar egindako hainbat galderari erantzundakoak:

#### Egitasmoaren hasieran

JARRERA	Guztiz ados	Ados	Zalantza	Aurka	Guztiz aurka
1-Lan-hizkuntza ere euskara izan dadin, zerbait egin nahi dut.	2	5			
2- Harreman informaletako hizkuntza euskara izan dadin, zerbait egin nahi dut.	2	5			
USTEAK	Guztiz ados	Ados	Zalantza	Aurka	Guztiz aurka
1- Gure departamentuan euskararen erabilera bultzatzeko, ezinbestekoa da plan bat abian jartzea. Bestela, hizkuntza-ohiturek lehengoan jarraituko dute (2005-01-13ko erantzunak)	1	5	1		
2- Gure departamentuan euskararen erabilera bultzatzeko, ezinbestekoa da plan bat abian jartzea. Bestela, hizkuntza-ohiturek lehengoan jarraituko dute (2005-06-07ko erantzunak)	5	1			

Jarrera, 1 eta 2: Lan-hizkuntzakoaz gain, harreman informaletako hizkuntza euskara izatearen aldeko jarrera garbia erakutsi izana garrantzitsua da. Administrazioako lantaldeetako kideen arteko harremanek bi alderdi dituzte, formala eta informala, eta funtsezkoa da lan-hizkuntzaz ari garenean alderdi informala ere kontuan izatea, bazterrera ez uztea,

ezinbestekoa baita hizkuntzako gaitasuna eta ohitura garatzeko eta bermatzeko<sup>14</sup>.

Usteak, 1 eta 2: Ezinbestekoa da langileek euskararen erabilera bultzatzeko dinamika berri bat beharrezkoa dela uste izatea, kasu honetan plan baten bidez gauzatu dena. Egitasmoaren hasieratik egitasmoaren bukaerara uste hori indartu izanak, nabarmen gainera, bi irakurketa ditu, nire ustez. Batetik, agerian uzten du langileei plana eraginkorra iruditu zaiela. Bestetik, ordea, arriskua dago gisa horretako planekiko “mendekotasun” moduko bat sortzekoa, hau da, parte-hartzaileek barneratzea hizkuntza-dinamika berri bat abiarazi eta mantenduko duen planik gabe ezinezkoa dela hizkuntza-ohiturak iraultzea. Eta hori, aldaketa-prozesu horretan parte-hartzaileek lortu behar duten autonomiaren aurkakoa da; arriskutsua, beraz.

### Egitasmoaren erdialdean

USTEAK	Denok ia dena euskara z	Denok euskara z gehiago	Gehien ok ia dena euskara z	Gehien o k euskara z gehiago	Euskara z lehen baino gehiago
1- Zein da zure ustez lortu beharreko helburua	1	1	3		2
2- Zein da zure ustez lortuko dugun helburua	1		4	1	1

Helburuei buruzko usteak. Helburu nagusia euskararen erabilera areagotzea duen plan bat abian jartzen denean,

<sup>14</sup> “Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarteko multzo handiek, eskolakoaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzako erraztasuna, atxikimendua eta ohitura” (Jauregi 2005).

garrantzitsua da oso helburua zehatz-mehatz definitzeko ahalegin berezia egitea; horixe ez genuen guk egin –horra hor hutsuneetako bat–. Zehaztaper horretara iristeko, dinamizatzaileraren eta parte-hartzaileen artean hainbat galderari erantzutea izan daiteke bideetako bat:

- Zer da, zehatz-mehatz, euskararen erabilera areagotzea?
- Zer lor dezakegu?
- Zerekin konformatuko ginateke?
- Zer lor genezake?
- Gauza al gara helburu nagusi horretarako bidea helburu zehatzagoen bidez mailakatzeko? Egingo al dugu?
- Eta abar.

Galderak galdera, helburu nagusiaz parte-hartzaileek egin duten errepresentazioa esplizitatu dezaten eskatuz has gintezke, adibidez. Behin hori eginda, hurrengo urratsa helburuen lorgarritasuna aztertzea izan daiteke, ezinbestekoa baita egitasmoaren gutxieneko arrakasta bermatze aldera helburuak errealistak eta lorgarriak izatea.

### Egitasmoaren bukaeran

BALORAZIOA	Oso bikain	Bikain	Nahiko	Eskas	Oso eskas
Norberak egindako ahaleginari			5	1	
Norberak lortutako emaitzari		1	4	1	
Departamentuan egindako ahaleginari		2	4		
Departamentuan lortutako emaitzari		1	5		
<b>LOR DAITEZKEEN EMAITZAK</b>	Nagusiki euskaraz	<b>Euskaraz gehiago</b>	Bietara	Erdaraz gehiago	Nagusiki erdaraz
Norberak	1	3	2		
Departamentuan	1	3	2		

Balorazioa. Hiru helburu lortu nahi nituen langileek berek egindako balorazioaren bidez.

Lehenengo, jakina, ahalegina eta emaitza baloratzea. Bigarren, ahaleginaren eta emaitzaren artean korrelaziorik ba ote dagoen jakitea, zeren eta haien iritziz egindako ahalegina lortutako emaitza baino handiagoa balitz, autoebaluazio horretan erabilitako irizpideetan eta egindako egozpenetan sakondu beharko genuke, irizpideak egokiak ote diren eta egozpenak positibizatu ote litezkeen ikusteko. Kasu honetan, korrelazioa handi samarra da –onartzeko modukoa, nire ustez– , eta hori da oinarritzkoena.

Eta hirugarren, norberaren eta departamentuaren gainean egindako balorazioan korrelaziorik ba ote dagoen ikustea. Zergatik? Ba, laneko esparruan euskararen erabilera areagotzeko plan indibidualizatuak garatu izan ditudanean, lankideen inplikazioaren hutsunea sumatzen zuten parte-hartzaile guztiek, eta aurrera egin ahala, inplikazio-eza hori oztopo nagusi bihurtzen zen. Egia esateko, aitzakia zantzua hartzen nion nik horri guztiari, neurri batean behintzat, iruditzen zitzaidalako lankideen inplikazio-ezaren bidez norberarena mozorrotzen zutela. Bildutako datuon arabera, ordea, onartu beharra dut norbera eta departamentua nahiko bateratsu doazela –departamentua hobexeago–, ez baitira norberaren ahalegin nahiz emaitzak departamentuko gainetik baloratzen.


#### **4.4.- Erabileraren bilakaera**

- ▶ Euskararen ahozko erabilera bi modutan neurtu dugu. Batetik, langile bakoitzak **erabilera-fitxa** izenekoak bete ditu, eguneroko erabilera ehunekotan adieraziz. Bestetik, saioetan, **hiru neurketa** egin ditugu planak iraun duen bost hilabeteetan, jarrera eta itzaropenei buruzko beste hainbat

galderari erantzutearekin batera. Langileen hilabeteko erabileraren indizeak 5. jardueran, "*Erabilera neurtzeko fitxak*" izenekoan, eman ditudanez, departamentuko erabileraren indizea ekarriko dut hona, hilabetez hilabetekoa, erabileraren bilakaeraren irakurketa orokorrago bat egite aldera.

## DEPARTAMENTUKO ERABILERAREN BILAKAERA

Hilabetea	Erabilera
Abendua	%15
Urtarrila	%40
Otsaila	%45,1
Martxoa	%43,5
Apirila	%43,8
Maiatza	%47,3
Ekaina	%53,3
Batez bestekoa	%45,5



Hona hemen hainbat kontu bilakaerari buruz:

- Aldaketarik nabarmenena, zalantzarik gabe, plana hasi berrikan gertatutakoa da, 25 puntuko igoera, %15etik %40ra, hain zuzen ere. Horrek erakusten du ezen planari motibaturik ekiten dioten langileak gauza direla beren hizkuntza-ohiturei astindu eder bat emateko. Hastea da errazena, ordea.

- Jarraitu ere ondo baino hobeto egin zuten. Beraz, hasierako motibazioa ez ezik motibazio eragilea ere indartsua zen; hori izan baitzen nire ustez lortutako erabilera-mailari eusteko gakoa, alegia, motibazio eragilea lantzea.
- Planaren bukaera aldera, maiatzean hain zuen, erabilerak berriro ere gora egiteak eta tarteko hilabeteetako indizea gaintitzeak (% 47,3), egia aitortu behar badut, ustekabean harrapatu ninduen, ez bainuen horrelakorik espero. Egia da, batetik, langileek lau hilabete pasatxo zerratela planean murgilduta hizkuntza-ohitura berriak finkatzeko ahaleaginean; baina, egia da, bestalde, nobedadeak dakarren adorea ahuldu eta errutinaren atzaparretan erortzeko arriskua handia izaten dela. Zein da, ba, lortutako erabilera-indizeari eutsi ez ezik hura gaintitzeko arrazoia?
- Bi dira arrazoiak, nire ustez. Batetik, amaierako ebaluazioa positibizatu izana, egozpen motibagarriak eginez. Eta bestetik, azken hurbiltzeko ekintza abian jarri izana, "*Departamentuko erabileraren estimazioa*" izenekoa. Ekintza horretan, ko-kontrola landu genuen batez ere, eta horixe izan zen nire ustez gakoetako bat.
- Ekaineko indizeak (% 53,3), guztietan altuenak, txundituta utzi ninduen. Plana amaitua zen ordurako, eta langileen egiteko bakarra erabilera-fitxa betetzea zen, ekainari zegokiona. Azalpen bakarra amaierako ebaluazioak utzitako zapore gozoan aurkitu daitekeelakoan nago; gozotasun hori lortutako helburuen gaineko ikuspegi berriak, errealistagoak, eman ziela esango nuke. Hau da, planaren hasieran gutxitxo zirudiena –% 40ko erabilera-indizea–, lorpen handia zela sinestera iritsi ziren planak aurrera egin ahala, eta pertzepzio berri horrek adorea areagotu

egin zien; hizkuntza-ohitura berriei eusteko gauza sentitu ziren.

Hona hemen, bestalde, saioetan egindako hiru neurketen emaitzak:

**EUSKARAREN ERABILERA BIKOTEKA**

**2005-01-11**

	A-rekin	B-rekin	C-rekin	D-rekin	E-rekin	F-rekin	G-rekin	Batez bestekoa
A-k dio		2	2	1	2	2	1	1,6
B-k dio	1		1	1	2	2	1	1,3
C-k dio	2	2		2	0	2	1	1,5
D-k dio	1	1	0		1	0	1	0,6
E-k dio	1	1	1	1		1	0	0,8
F-k dio	0	1	1	0	2		1	0,8
G-k dio	0	0	0	0	0	0		0

**2005-03-15**

	A-rekin	B-rekin	C-rekin	D-rekin	E-rekin	F-rekin	G-rekin	Batez bestekoa
A-k dio		2	2	2	2	2	0	1.7
B-k dio	2		2	2	2	2	1	1.8
C-k dio	2	2		2	3	2	0	1.8
D-k dio	3	2	3		2	2	0	2.0
E-k dio	2	2	2	2		2	1	1.8
F-k dio	2	2	2	2	2		0	1.7
G-k dio	0	0	0	0	0	0	0	0.0

**2005-05-24**

	A-rekin	B-rekin	C-rekin	E-rekin	F-rekin	G-rekin	Batez bestekoa
A-k dio		2	2	2	2	0	<b>1.7</b>
B-k dio	2		2	2	2	1	<b>1.8</b>
C-k dio	3	3		3	3	1	<b>2.7</b>
E-k dio	2	2	3		1	0	<b>1.6</b>
F-k dio	2	3	3	3		0	<b>2.3</b>
G-k dio	2	2	2	2	2		<b>2</b>

Oharra: Hirugarren neurketa-aldirako, D langileak, aldi baterako kontratua zeukanez, bukatua zuen bere lanaldia. Horregatik ez da ageri hirugarren taulan.

- (4)- la beti euskaraz
- (3)- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- (2)- Bietara.
- (1)- Erdaraz euskaraz baino gehiago
- (0)- la beti erdaraz.

## LANGILE BAKOITZAREN ERABILERAREN BILAKAERA

Langilea	Hizkuntza Tipologia		1. neurketa	2. neurketa	3. neurketa	Emaidza
	Eusk.	Gazt.				
A	(B)(A) [H <sub>2</sub> ]	AB [H <sub>1</sub> ]	1,6	1,7	1,7	(Δ) + 0,1
B	AB [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	1,3	1,8	1,8	(Δ) +
C	A [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	1,5	1,8	2,7	(Δ) +
D	(A) [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	0,6	2,0	-	(Δ) +
E	(B)(A) [H <sub>2</sub> ]	AB [H <sub>1</sub> ]	0,8	1,8	1,6	(Δ) +
F	AB [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	0,8	1,7	2,3	(Δ) +
G	A(B) [H <sub>1</sub> ]	AB [H <sub>2</sub> ]	0	0	2	(Δ) + 2

- Azken emaitzari dagokionez, G langileak izan du igoyerarik handiena, 2 puntukoa, alajaina! Nire ustez, langile horren erabileraren bilakaera erreala ez dator bat langileak berak aitortutakoarekin. Ez horixe. 3.3 ataleko 8. jardueran, *“Harreman-sareak eta harremanetako edukiak zehaztea eta aztertzea izenekoan”*, zera nioen, alegia, bi langilek osatzen duten bikoteko erabileraren datu aitortuak bat ez datozenean, agerian geratzen dela benetako erabileran baino gehiago norberak erabilera horretaz egin duen errepresentazioan oinarritzen direla langileak. Hori langile guztien kasuan gertatzen bada ere, G langilearenean nabarmenagoa da. Hona hemen horren guztiaren nire interpretazioa:
- Lehenengo bi neurketetan, erabileran egindako aurrerapena huskeria iruditu zitzaion, nahiz eta lankideek behin eta berriro adierazten zioten lehen baino gehixeago egiten zuela euskaraz.

- Berari, ordea, nahikoa iruditu ez. Zergatik? Ba, seguraski, berak erabilera areagotzeari dagokionez bere baitan zuen helburuaren aldean lortutakoa ezdeusa iruditu zitzaiolako.
  - Horrenbestez, egindako aurrerapentxoak, 0 batez adieraztea erabaki zuen.
  - Azken neurketan, ordea, erabat aldatzen zaio lortutakoari buruzko ikuspegia, eta denon harridurarako, 2 bat ipiniz ebazten du kontua. Horrek erakusten du erabileraren pertzepzio positiboagoa izan duela oraingo honetan, eta jakina, erabileraz egindako errepresentazioan eragin zuzena izan du.
  - Zein da, ba, aldaketa horren arrazoa? Agian, 3. neurketa egin aurretik planaren amaierako ebaluazioa egiterakoan langileak atzera begirako hori modu positiboagoan egin izana. Horrek, jakina, lorpenen gaineko ikuspegia aldatu zion.
- Horiek horrela, ondorio garbi bat ateratzen dut nik: egundoko garrantzia du esplizitazioak egiteak, bai helburuenak, bai ebaluazio-irizpideenak; sistematikoki eskaini behar dizkiegu langileei helburuei eta ebaluazio-irizpideei buruz egiten dituzten errepresentazioak esplizitatzeko aukera emango dieten jarduerak.

## EUSKARAREN ERABILERA LAN-SAILEAN

Departamentuko erabileraren indizea kalkulatu dugu bikote guztien erabilera-puntuazioaren batura egin eta hori bikote-kopuruarekin zatituz.

$$\frac{(1.\text{bikotearen puntuazioa}) + (2.\text{aren puntuazioa}) + (\dots) + (21.\text{aren puntuazioa})}{21 \text{ bikote}} = \text{erab. indizea}$$

**2005-01-11ko erabileraren indizea: 0,97**

**2005-03-15eko erabileraren indizea: 1,54**

**2005-05-24ko erabileraren indizea: 1,96**

**Departamentuko euskararen erabileraren bilakaera:**

**0,97 ⇒ 1,96 (Δ) +0,99**

Ez dakit, irakurle, zer iritziko diozun lortu genuen emaitzari, baina ni neu, lorpena pozgarriz hartzeko modukoa delakoan nago. Administrazioko erabilera planen helburu estrategikoetako bat erreferente gisa hartuz gero –euskara Administrazioko lan-hizkuntza izatea–, jakina, urruti samar gaude. Baina, onartu beharrean gaude helburu horretara iristekotan, ezarian-ezarian egin beharko dugula bidea, progresiboki, urratsak bata bestearen atzetik sendo eginez.



# **ONDORIO NAGUSIAK**

Atal elebidunetako langileen hizkuntza-ohituretan eragiteko plan bat garatzeak aukera paregabea eskaini dit langileen hizkuntza-portaerari bertatik bertara erreparatzeko. Behaketa modu sistematiko samarrean egin ahal izan dudanez, portaera horren inguruan neuzkan hainbat uste egiaztatzeko, zenbait kezka uxatzeko eta zalantza batzuk argitzeko modua izan dut.

### **5.1.- Saio presentzialak**

Saio presentzialak garrantzitsuak zirelako ustea nuen planari ekin aurretik, iruditzen zitzaidalako zuzeneko harreman horretan oinarritu beharko genuela aldaketa-prozesua, elkarrizketaren bidez, elkarreragina bultzatuz. Egiaztaturik geratu da garrantzitsuak ez ezik funtsezkoak ere badirela planaren lehen fase honetarako. Saio horietan, aurrez aurre, erabakirik garrantzitsuenak hartu, helburu zehatzak finkatu eta alderdi afektiboarekin loturiko zera guztiak landu eta zaindu ditugu.

Saioetatik kanpo, ordea, dinamizatzailearen presentzia fisikorik ez dagoenez, haren eta langileen arteko harremanari jarraipena eman beharra dago, aldaketa sustatuko duen suak pizturik jarrai dezan. Eta jakina, hasieran behintzat, dinamizatzailea bera izango da hauspoa. Ordenagailuak aukera paregabea eskaintzen digu harreman suspertzaile horretarako, posta elektronikoaren bidez. Saioetatik kanpo eta saiorik gabeko egunetarako posta elektronikoa izan daiteke langileen eta dinamizatzailearen arteko harremanetarako tresna, aldeztu aurretik planifikaturiko jardueraren bat edo beste garatzea eta garapen horren jarraipena egitea ahalbidetuko baitigu.

## 5.2.- Saioen iraupena eta maiztasuna

Kezkaturik nengoen saioen iraupen-maiztasunekin, egokiak ote ziren beldur. Izandako esperientziak argi erakutsi dit astean ordu erdiko bi saio izatea gutxienekoa dela langileen eguneroko martxan zirrikitu bat irekiz planaren dinamikotasuna eta norabide egokia ziurtatzeko. Izan ere, plana abiatu berrian, aurrez aurreko saio horiek dira eguneroko lan-jardunean intziditzeko gune bakarra. Eta intzidentzia-maila horretatik behera, nekez gara daiteke hizkuntza-ohituretan eragiteko ildo estrategikorik.

## 5.3.- Kontrola dela eta ez dela

Garatuko diren ekintzen eta jardueren eraginkortasuna eta langileen parte-hartzea bermatzeko, **hetero-kontrola – kanpoko norbaitek egindakoa, dinamizatzailerak esaterako– ezinbestekoa da**, planaren lehen fasean behintzat –ezaugarri hori zuten ekintzak izan dira arrakastatsuenak–. Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu hetero-kontrolatik autokontrolera igarotzea dela helburua, horrela bakarrik lortzen ahal baita autonomiarako oinarri sendoa. Azken batean, gure eskutik ibili den langileak autonomo bihurtu beharko du euskararen erabilerari dagokionez. Autonomia erabakiak hartzeko nahia eta gaitasuna da, eta erabaki horiek nork bere gain hartzeko ardura. Baina, erabakiak hartzea eta erabakitakoa abian jartzeko ardura ez dira berezkoak, eta ezin dira saio gutxi batzuen bidez eskuratu.

Bestalde, eta kontrolarekin loturik oraingoan ere, **talde-ikuspegiarekin planteatutako ekintzek arrakastarako berme handiagoa dute**. Taldean aritzeak ko-kontrolerako aukera ematen dutenez, inplikazioa eta gogoeta areagotzen dira – langileek elkarren hizkuntza-portaera eta inplikazioa kontrolatzen baitituzte–. Esate baterako, erabilerari neurtzeko ekintzak eta erabileraren inguruko gogoeta egitekoak, banaka planteatu direnean, ez dira taldean egiteko planteatu direnean

bezain arrakastatsu izan. Erabileraren inguruko estimazioak eta gogoetak jendurreko bihurtzen direnean –denei mezu bana bidaliz, esaterako–, askoz ere gehiago eragiten dute hizkuntza-portaeran, norberak bere buruaz eta gainerakoez egindako estimazioarekiko desadostasunak sortzen baitira taldean, eta horrek, parte-hartzaileak kitzikatzeaz gain, berekin dakar prozesuaz gogoeta egitea –saiotetan nahiz lanean ari direnean– eta jarrera-portaeren arteko koherentzia-maila handiagoa erakustea.

#### 5.4.- Metodologia

Langileek berek proposatutako ekintza izan da arrakastatsuenetakoa –langileen balorazioaren arabera–. Eragingarria eta motibagarria izan da aldi berean. Beraz, **ezinbestekoa da erabiltzen den metodologiak langileen parte-hartzea bultzatzea**. Sistematikoki eman behar zaie langileei parte hartzeko aukera bai planaren diseinua egiterakoan –helburu zehatzak eta epeak, jarduera-motak erabakitzerakoan...–, bai planaren garabidean. Horretarako, **prozesuak oso dinamikoa izan behar du**. Tarteko helburuak finkatu eta horiek lortzeko ekintzak gauzatu behar dira etengabe, eta ekintzok eguneroko erabileran duten eragina neurtu, ekintza berri bati noiz ekin behar zaion jakiteko. Horrek programazioa etengabe berrikustea eskatzen du, eta dinamikaren arabera egokitzea.

#### 5.5.- Jarraipena

Lorpenak lorpen eta eragozpenak eragozpen, planak jarraipena behar duela zalantza izpirik ez dut. Diruzaintzako langileen artean euskararen erabileraren indizeak gora egin badu ere (0,97tik 1,96ra), hizkuntza-ohitura zaharretatik sortutako kimu berriak samurregiak dira oraindik urteetako inertiaren erasanaren aurrean irauteko. Gainera, saio presentzialen bidez eta saio horietan hartutako erabakien ondorioz garatutako jardueren bidez hizkuntza-ohituren gainean egin daitekeen indarra txikia da oso langileen eguneroko hizkuntzazko ekoizpenak duenaren aldean. Hori dela eta, zaila da jakiten planak iraun duen bost hilabeteen buruan lortutako euskararen erabilera mailari langileek zein neurritan eutsiko dioten, eta oso litekeena da behin plana amaitu eta aldaketa sortarazi eta sustatu duten elementuekiko harremana etendakoa, atzera lehengo ohituretara itzultzea<sup>15</sup>.

---

<sup>15</sup> Elementu horiek dira saioak, saioetatik kanpo lantzen diren jarduerak eta dinamizatzailearen presentzia –saioetatik kanpo eta programatutako

Izan ere, oraindik ikuskizun dagoen arren, ez dirudi bost hilabete horietako jardun didaktikoa nahikoa izango denik langileak gai izan daitezen autogidatutako aldaketa prozesua bere gain hartzeko.

2.4 puntuan, *Helmuga, prozesuaren autogestioa* izenekoan, zera nioen, alegia, prozesuaren hasieran laguntza izatea ezinbestekoa duela langileak, baina aurrera egin ahala, nork bere gain hartu beharko duela aldaketa-prozesua. Hau da, langileak berak prozesua autogestionatzea da helburu nagusia. Horretarako, **gakoetako bat prozesua didaktizatzea da**, landu behar diren edukiak (prozedurazkoak, psikolinguistikoak...) eta erabili behar diren estrategiak parte-hartzaileei eskura jartzea. **Ez dugu ahaztu behar, ordea, parte-hartzaileak trebatu egin beharko ditugula jardun didaktiko horretarako, autonomo egiteraino.**

Aldaketa-prozesua didaktizatu nahian garatu ditugun ataza, ekintza eta jarduerak egokiak izan direlakoan nago. Nolanahi ere, badira hainbat hutsune, balizko bigarren fase batean osatu beharrekoak.

## 5.6.- Hutsuneak

Bi hutsune nagusi sumatu ditut plana garatu ahala, psikologiaren arlokoak biak ere.

Batetik, egoera komunikatiboetan gauzatu behar izaten diren eragiketa psikolinguistikoak hobeto ezagutzeko premia, eduki psikolinguistikoez janzteko beharra alegia. Hartara, egoera horietan eragiten duten faktore psikolinguistikoez jabetu, haien azterketan sakondu eta gure alde jartzeko aukera izango

---

jardueraren batekin loturiko zereginen bat tarteko, dinamizatzaileak maiz joan behar izaten baitu departamentura–.

genuke. Labur esateko, hizkuntzaren psikologiaz baliatzeak izugarri lagunduko ligukeelakoan nago.

Eta bestetik, portaeraren aldaketa-prozesuari buruz psikologiak dioena ezagutzea eta ezagutza horretan sakontzea ezinbesteko jotzen dut. Jakiteko, besteak beste, parte-hartzaileen sinesteek portaeran nola eragiten duten; sineste horiek mugatzaileak edo baliabidezkoak diren bereizteko; portaera negatiboak (urruntzeko portaerak) portaera positibo (hurbiltzeko portaerak) nola bihurtu asmatzeko; aldaketaren aurreko erresistentzia ulertu eta dituen alde positiboak gure alde jartzeko. Eta abar.



# **BIGARREN FASEA**

Bigarren fase baten bidez emango diogu, ziurrenik, jarraipena planari; izan ere, behin jorratutako hizkuntzazko alortxoak ezin utziko dugu, bada, bertan behera, hizkuntzazko eremu zabaleko gertakarien mende.

Amaierako ebaluazioa egiten ari ginela, langileei adierazi nien lortutako erabilera-indizeari eustekotan beste ahalegin bat egin behako genuela, egindakoarekin ez zela nahikoa izango. Hizkuntza-ohitura lortu berrien iraupenaren gaineko nire ustea jakinarazteaz gain, bidenabar, balizko bigarren fase bati zer irizten zioten jakin nahi nuen. Orduan, behintzat, baietz erantzun zidaten, prest zeudela balizko bigarren fase bati ekiteko.

Badira hilabete batzuk plana bukatu genuela. Aurreikusia nuenez, 2005eko azaroan eta abenduan, hainbat neurketa egin ditut Diruzaintzako departamentuan. Euskararen erabilerak behera egin du. Ez nau ustekabeen harrapatu, izan ere, neurketak egiten hasi aurretik langileak ohartuak ziren beherakada horretaz; eta kezkatu samarturik, jakinarazi egin zidaten.

*"Usteak erdia ustel"*, dio esaera zaharrak. Oraingoan, ordea, departamentuan euskararen erabilerak behera egingo zuelako nire ustea, 5.5 puntuan adierazi dudana, bete egin da. Zoritxarrez? Ez dakit, ba. Poztekoa ez da, jakina, ezta hileta jotzen hasteko modukoa ere.

Langileek bost urte inguru daramatzate lanean elkarrekin. Planak bost hilabete iraun du. Aldea nabarmena da. Bost urte horietan finkatutako hizkuntza-ohiturek sustrai sakonak dituzte oso. Bost hilabete horietan, seguruenik, ohituron azala baino ez genuen urratuko, goiko geruza alegia, eta barrurago iritsi beharra daukagu, barne-muinetaraino.

Aldaketa-prozesuetan, inplikaturik jarraia eta portaera-intentzioa funtsezkoak izaten dira. Kasu honetan, faktore horiek aldekoak direla esan dezakegu, ezbairik gabe. Izan ere, langileak kezkatuak agertu dira erabilerak behera egin izanaren

aurrean. Eta norbaitek esango du: “Kezka benetakoa bada, ekin diezaiotela buru-belarri erabilera areagotzeari! Alegia, egin dezatela ahalegina portaera bat etor dadin jarrera eta portaera-intentzioarekin; erakuts dezatela koherentzia handiagoa!” Eta nire erantzuna da: “Erakutsi dute, ondo erakutsi ere, gauza direla hizkuntza-ohiturei astindutxo bat eman eta hizkuntza-portaera berri bat garatzeko, eta hilabete batzuetan zehar eusteko”. Horretarako, gainera, nahikoa izan dute aste osoko lan-jardunari bi ordu erditxo kentzea –saio presentzialetarako– eta saio horietan planifikatutako jarduera batzuetako atazak egiteari minutu batzuk eskaintzea. Erabilitako baliabideen ikuspegitik, emaitzak oparoak direla ez dut zalantzarik.

Ikuspegiak ikuspegi, oparotasuna urritasun bihurtu baino lehen ekin beharko diogu bigarren faseari. Hauek izango ditu ezaugarri nagusiak:

- Hiru alditan garatuko dugu. Lehenengoak, 2006ko urtarrila eta otsaila hartuko ditu. Bigarrenak, martxoa eta apirilako lehenengo lau asteak, Aste Santua barne. Eta hirugarrena, apirilaren 24tik ekainaren erdialdera bitartekoa izango da.
- Lehenengo eta hirugarren aldietan, saio presentzialak izango ditugu; bigarrenean, ordea, ez. Bigarrenean, langile bakoitzak bere agenda pertsonalean jasoak dauzkan jarduerak garatu beharko ditu, bakarka edo lankideekin elkarlanean. Jarduera horien bidez, autorregulazioa, ko-ebaluazioa eta autoebaluazioa, eta ko-kontrola eta autokontrola landuko dituzte nagusiki. Baita aldaketa prozesuan aurrera egiteko baliatu beharko dituzten hainbat estrategia ere. Agenda prestatzeko, lehenengo aldiko hainbat saio presentzial erabiliko ditugu.

Ohartuko zinen, irakurle, bigarren fasean ere helmuga bera dela, alegia, aldaketa-prozesuaren autogestioa. Nirekin batera ekin zioten langileek bideari, eta elkarrekin jarraituko dugu, oraingoz. Ibilian-ibilian, jardunaren jardunez, autonomia osoz

bidean aurrera egiteko gauza izan daitezen lortu beharko dut.  
Horretarako, bigarren fasea nahikoa ote den ikuskizun dago.

# **BIBLIOGRAFIA**

CYR, P. (2000): *Estrategiak bigarren hizkuntza baten irakaskuntzan*. HABE, itzulpen saila 42.

DÖRNEY, Z. (2003): *Motibazio-estrategiak hizkuntza ikasgelan*. HABE, itzulpen saila 45.

GEBHARD, J.G.; OPRANDY, R. (2002): *Hizkuntz irakaskuntzaren gaineko kontzientzia. Usteak eta jardunak esploratzeko gida*. HABE, itzulpen saila 44.

GONZALEZ, F.; NOVAK, J. (1996): *Aprendizaje significativo. Técnicas y aplicaciones*. Ediciones Pedagógicas, S.A.

JAUREGI, P. (1998): *Berezko taldeak euskalduntzeko estrategia*. Doktorego Tesiak Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.

JAUREGI, P. (2003): *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II). Hizkuntzazko jokaerak*. Lasarte-Oriako Udala. Euskarako Batzordea.

JORBA, J.; CASELLAS, E. (1997): *La regulación y autorregulación de los aprendizajes*. Editorial Síntesis, S.A.

KUADRILLATEGI, ikerketa eta aholkularitza (2004): *Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak*. Caja Laboral Euskadiko Kutxa.

MAGER, R. (2003): *Motivar para una formación eficaz*. Training Club; Gestión 2000; Epise.

ZUAZUBISKAR, K. (2001): *Lan-munduaren euskalduntze-alfabetatzea: euskalduntzea IKERLANen*. In: HIZPIDE, 4 (2001), 11-19.OR.

# ERANSKINAK

## I. ERANSKINA

# Ahozkoan eragiteko plana aurkezteko informazio-orria

### 1- Zergatik horrelako plan bat?

- Ahozkoan: *Lasarte-Oriako Udalean euskara erabiltzeko I. planean* idatzizkoan bakarrik eragin genuen. Izandako esperientziak erakutsi digu euskararen erabilera areagotzeko ezinbestekoa dela ahozkoan ere eragitea, besteak beste, langileen arteko ahozko harremanak idatzizkoak baino ugariagoak direlako.
- Departamentuko langile guztiak batera: departamentu bateko hizkuntza-ohiturak aldatzekotan, funtsezkoa da langile guztiak ados egotea eta denok batera parte hartzea.

### 2- Zergatik Diruzaintzan?

Hiru atal elebidunen artean –Diruzaintza, Kultura eta Kirola–, arrazoi hauengatik aukeratu dugu Diruzaintza:

- Kirolean, jadanik badituzte ahozkorako hizkuntza-irizpide argiak, euskararen aldekoak.
- Departamentuaren kokaguneari dagokionez, kulturetxea urrutiago geratzen da. Diruzaintza udaletxean bertan egoteak, eraginkorrago bihurtzen du departamentua udaletxeko langileen arteko ahozko harreman zuzenetarako.
- Diruzaintzako administrari laguntzaileetako baten trebatze-prozesua osatzeko ezinbestekoa da honelako egitasmo bat abian jartzea.

### **3- Zeintzuk dira helburuak?**

- Erdararen aldeko joera alde batera uztea eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesua abiatzea.
- Euskararen erabilera areagotzearen aldeko joera erakustea.
- Euskararen aldeko joera finkatzea.
- Erabiltzearen poderioz, euskarazko gaitasun ertaina dutenek gaitasuna hobetzea.
- Langileek berek proposatutako beste edozein helburu.

### **4- Zenbat denbora eskaini beharko genioke?**

- Astean bi saio, ordu erdikoak –ordutegia denon artean zehaztu beharrekoa da–.

### **5- Zenbat iraungo luke?**

- 2005eko urtarrilaren 10etik 2005eko maiatzaren 27ra.

### **6- Zer egingo genuke saio horietan?**

- Langileen euskarazko gaitasunari, hizkuntza-ohiturei eta abarrei buruzko datuak bildu.
- Datu horiek aztertu eta interpretatu.
- Bildutako informazioaren arabera, lortu nahi diren helburu zehatzak denon artean definitu, eta horiek betetzeko epeak zehaztu.
- Denon artean ekintza-plan bat prestatu.
- Euskararen erabileraren eta hartutako konpromisoen betetze-mailaren jarraipena egin.
- Elkarrizketa-saioak puri-purian dauden gaiei buruz –harreman informalen arloa aztertzeko eta lantzeko–.

## II. ERANSKINA

### PROGRAMAZIOA<sup>16</sup>

Saioa	Materiala
1- <u>2005-01-11</u> : Datu-bilketa > galdera-sortak. <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-portaera</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Galdera-sorta egin eta sortu zaizkien zalantzen eta burutazioen inguruan hitz egin.</li><li>- Aipatu behar zaie ezen gaitasunari eta erabilerari buruzko datu hauek erabiliko ditugula planean zehar izandako bilakaeraren berri izateko.</li></ul></li></ul>	- Galdera-sortak
2- <u>2005-01-13</u> : Datu-bilketa > galdera-sortak <ul style="list-style-type: none"><li>• Saioaren eragina neurtzen (I)</li><li>• <b>Hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-portaera</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Galdera-sortaren inguruko iruzkinekin jarraitu.</li></ul></li><li>• <b>Jarrera</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Galdera-sorta egin eta sortu zaizkien zalantzen eta burutazioen inguruan hitz egin.</li></ul></li></ul>	- Galdera-sortak
3- <u>2005-01-18</u> : Datu-bilketa > galdera-sortak <ul style="list-style-type: none"><li>• Saioaren eragina neurtzen (II)</li><li>• <b>Jarrera</b><ul style="list-style-type: none"><li>- Galdera-sortaren inguruko iruzkinekin jarraitu.</li></ul></li></ul>	- Galdera-sortak

<sup>16</sup> Programazio honetan, programatutako jardueraz eta haiek garatzeko prozedurez gain, hainbat iruzkin ere topatuko dituzu, jarduera burutu ondoren egindakoak.

<p>4- <u>2005-01-20</u>: Erabileraren neurketa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Saioaren eragina neurtzen (III)</li> <li>• Mintzagaia: "Internet bidezko erosketak" (San Sebastian eguna denez, litekeena da jende gutxi etortzea. Hala bada, mintzagaia erabiliko dugu)</li> <li>• <b>Erabilera neurtzeko fitxak</b></li> <li>- Nola bete behar diren azaldu, eta aurreikusten dituzten zailtasunei buruz hitz egin.</li> </ul>	<p>- Jarraipen-fitxak</p>
<p>5- <u>2005-01-25</u>: <b>Norberak izandako esperientzia hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahaleginean.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilera-esparru ezberdinak aipatu: etxea, lagunartea eta lana.</li> <li>• Saioaren bukaeran, izandako esperientziaren alderdirik aipagarrienak idatziz jaso.</li> </ul>	<p>- "Norberaren esperientzia" izeneko dokumentua.</p>
<p>6- <u>2005-01-27</u>: Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahaleginaren inguruan idatzitakoak hizpide.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• "Norberaren esperientzia" izeneko dokumentuan idatzitako esperientziarik aipagarrienei buruz hitz egin.</li> <li>- Ariketa etxean egin eta hurrengo saiorako ekarriko dute.</li> <li>- Euskaraz egitea gogorazteko ekintza-moduen zerrenda bat prestatu dugu denon artean.</li> </ul>	<p>- "Norberaren esperientzia" izeneko dokumentuan idatzitako esperientziarik aipagarrienak biltzen dituen dokumentua.</p>
<p>7- <u>2005-02-01</u>: Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahaleginaren inguruan idatzitakoak hizpide (II)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberak izandako esperientziaren inguruko gogoetak, idatziz jasotakoak, bildu ondoren aurreko batean lan-sailean eduki formal batzuen inguruan izan zuten eztabaida ekarri dugu hizpidera (-ELAKO, ZEREN ETA eta abar noiz erabili behar diren...).</li> <li>- Jarraipen-fitxa jaso eta berria ematearekin batera, D langileak <b>"polizia linguistikoaren figura"</b>ren eraginkortasunaz hitz egin du. Aste honetan F langileak berak hartu omen du paper hori, gainerakoak barra-barra erdaraz ari zirela ikusita. Harrezkero, askoz ere gehiago</li> </ul>	<p>- "Norberaren esperientzia" izeneko dokumentuan idatzitako esperientziarik aipagarrienak biltzen dituen dokumentua.</p> <p>Jarraipen-fitxa berriak eman eta</p>

<p>egin omen dute euskaraz. Hori dela eta, "polizia linguistikoaren" rola txandaka hartzea egokia iruditu zaio D langileari. Kontu hori hurrengo saioan aztertzekotan geratu gara.</p>	<p>aurrekoak jaso eta komentatu.</p>
<p><b>8- <u>2005-02-03</u>: Euskararen normalizazioaren pertzepzioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen normalizazio-prozesuari buruz duten pertzepzioa irudiekin parekatu eta horren arrazoiak adierazi.</li> <li>- "Polizia linguistikoaren" kontu hori definitzekoak ginen gaur, baina batzuei ez zaie beharrezkoa iruditu, bestela ere oso elkarren gainean daudelako hizkuntza-portaera zaintzen eta erdaraz egiten duenari kargu hartzen. Pozik adierazi diet harrিতa nagoela, ez bainuen espero horrelako egoera berria hain azkar lortuko genuenik. Nolanahi ere, azkenean, egokia iruditu zaie "polizia linguistikoaren" rola txandaka hartzea. Horrez gain, esan diet egokia izango litzatekeela figura horrek bete beharreko eginkizunak ondo definitzea, besteak beste, astearen buruan egindako "interbentzioei" buruzko txostentxo bat.</li> <li>- Euskararen normalizazioaren pertzepzioari buruzko ariketan jasotako iritzietan oinarrituta bi dokumentu berri sortu ditut, eta hurrengo saioetan erabiltzea erabaki: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ "Normalizazioaren pertzepzioari buruzko iritziak"</li> <li>▪ "Galdera-sorta, Jarrera eta hizkuntza-portaera (II)"</li> </ul> </li> </ul>	<p>- "Euskararen normalizazioari buruzko pertzepzioa iruditan" izeneko dokumentua.</p>
<p><b>9- <u>2005-02-08</u>: Euskaren normalizazioaren pertzepzioari buruz jasotakoak hizpide.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irudirik aukeratuenen gainean hitz egin.</li> <li>- Normalizazioarekin parekatu beharreko irudiak aitzakia hartuta, "planaren arrakasta", "apustua irabaztea" eta "hitz egin beharra edo hitz egin nahia" bezalako kontuei buruz aritu gara. Oro har, oso baikor agertu dira orain arteko lortutako emaitzekin, haien ustez nabarmena baita lan-saileko kide guztiengan gertatu den aldaketa –baita G langilearengan ere–.</li> </ul>	<p>"Normalizazioaren ertzepzioari buruzko iritziak"</p>

<p>10-<u>2005-02-10</u>: Euskararen normalizazioaren pertzepzioari buruz jasotakoak hizpide (II).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irudirik aukeratuenen gainean hitz egin.</li> </ul>	<p>- Irudirik aukeratuenak biltzen dituen dokumentua.</p>
<p>11-<u>2005-02-15</u>: <b>Harreman-sareak eta harremanetako edukiak zehaztea.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Departamentuan nori norekin duen harremanik gehien zehazteaz gain, harreman horretan lantzen duten edukia ere zehaztuko dugu.</li> <li>- Ondorio hauek atera ditugu: <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Oro har, ez dago harremanak lankide jakin batzuegan fokalizatzerik, gehienek gehienekin baitituzte harremanak.</li> <li>✓ Harreman mota bakoitza (formala edo informala) ez dagokio hizkuntza jakin bati (euskara edo gaztelania). Langile bakoitzak bere hizkuntza-portaera propioa du.</li> <li>✓ Datorren saiorako hiztegi teknikoaz aztertzekotan geratu gara. Horretarako, normalean gaztelaniaz erabiltzen dituzten edota euskaraz arrotz antzeko egiten zaizkien hitzen zerrenda bana ekarriko dute. Zerrenda horiek aztertutakoan, lan-sailean erabiltzeko hitzen zerrenda "ofiziala" ateratzea izango dugu helburua.</li> </ul> </li> </ul>	<p>- Mintzagramak</p>
<p>12-<u>2005-02-17</u>: Hiztegi teknikoaz aztertu eta hitzen zerrenda "ofiziala" osatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurreko saioan aukeratutako hitzen zerrenda banatu nien, hurrengo saiorako osa zezatela eskatuz.</li> </ul>	
<p>13-<u>2005-02-22</u>: Hiztegi teknikoaz aztertu eta hitzen zerrenda "ofiziala" osatuz joan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiztegi teknikoaren zerrenda bukatutzat eman dugu. Nolanahi ere, aurrerantzean zalantza edo premiaren bat sumatzen badute, sortu ahala konponduko dugu.</li> </ul>	
<p>14-<u>2005-02-22</u>: <b>Langileen usteak eta iritziak euskararen normalizazioaren arloko hainbat gairen inguruan.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Bat-bateko galderak:</b> hiruna galdera emango zaizkie, banan bana, idatziz erantzun ditzaten.</li> </ul>	<p>- "Bat-bateko galderak" izeneko dokumentua.</p>

<p>15-<u>2005-02-24</u>: <b>Langileen usteak eta iritziak euskararen normalizazioaren arloko hainbat gairen inguruan (II)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzun guztiak orri batean bildu eta banatu egingo dizkiet. Ondoren, erantzunik deigarrien eta aipagarrienen gainean arituko gara, ondorioren bat edo beste ateratze aldera.</li> </ul>	
<p>16-<u>2005-03-01</u>: <b>Langileen usteak eta iritziak euskararen normalizazioaren arloko hainbat gairen inguruan (III)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzun guztiak orri batean bildu eta banatu egingo dizkiet. Ondoren, erantzunik deigarrien eta aipagarrienen gainean arituko gara, ondorioren bat edo beste ateratze aldera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzunen orria.</li> <li>- Erabileraren jarraipen-fitxak</li> </ul>
<p>17-<u>2005-03-03</u>: <b>Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Objektu jakin baten aurrean dugun jarreraren arabera, zernolako hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak ditugun aztertuko dugu. Ondoren, gure helburura iristeko zein portaera indartu eta zein ezabatu beharko dugun erabaki eta horren arabera ekintza-plan bat zehaztuko dugu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- "Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak"</li> </ul>
<p>18-<u>2005-03-08</u>: <b>Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak (II)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- "Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak"</li> </ul>
<p>19-<u>2005-03-10</u>: Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak (III)</p>	
<p>20-<u>2005-03-15</u>: Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak (IV)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bakoitzak, hurbiltzeko ekintzen zerrenda prestatu behar du. Nik, badaezpada, neure zerrenda eramango dut, jendea ezer prestatu gabe etorriko balitz haren gainean lanean hasteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- "Hurbiltzeko ekintzak"</li> </ul>

<p>21- <u>2005-03-22</u>: Erabileraren bigarren neurketa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurketa berria egingo dugu, lehenengoan erabilitako taula bera oinarri hartuz.</li> <li>• Planaren hasi berritan (2005-01-11) egindako neurketaren emaitzak izango ditugu aztergai.</li> </ul>	
<p>22- <u>2005-04-05</u>: Hurbiltzeko ekintzak abian jarri eta baloratu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezu periodiko bat norberaren agenda elektronikoan.</li> <li>- Mezuarena ez dute abian jarri. Haien esanetan, Aste Santuko oporretako etenaldiak eragin nabarmena izan du, okerrerako. Arrazoiaren artean, asteroko saiorik ez izatea aipatu dute. Horiek horrela, mezuarena gaurtik aurrera abian jartzekotan geratu gara. Plana maiatzean bukatuko denez, bi hilabete eskas geratzen zaizkigu, eta hori dela-eta iruditzen zait hurbiltzeko lehenengo ekintzen aplikazio-epa laburtzea komeni dela, bestela, lehenengoei baino ez baitugu ekiterik izango. Beraz, mezuarena lau egunez probatuko dugu, eta datorren osteguneko saioan balorazioa egin ondoren, bigarren ekintzara pasako gara.</li> </ul>	<p>- Polizia linguistikoaren a</p>
<p>23- <u>2005-04-07</u>: Abian jarritako hurbiltzeko ekintzaren jarraipena egin</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezu periodiko bat norberaren agenda elektronikoan</li> <li>- 6tik 2k baino ez zuten mezuarena abian jarri. Mezua zenbateko maiztasunez agertzea komeni ote den aztertu dugu. Batzuek, ordu jarri dute; beste batzuen ustez, ez da beharrezkoa hainbesteko maiztasuna, gogoan izaten omen dute "euskaraz hitz egin beharra". Deigarria iruditu zait obserbazio hori, zeren eta hurbiltzeko ekintza abian jarri ez duen batek adierazi baitu ez duela beharrezko ikusten gogorazteko kontu hori.</li> </ul>	
<p>24- <u>2005-04-12</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezu periodiko bat norberaren agendan.</li> <li>• Mintzagaia: "Berehalako kredituak"</li> </ul>	<p>"Berehalako kredituak" testua.</p>
<p>25- <u>2005-04-14</u>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezu periodiko bat norberaren agendan</li> <li>- Bukatutzat eman dugu lehenengo hurbiltzeko ekintza, eta arrakasta kaskarra izan du. Iruditu zait egin beharrezkoa norberaren esparrura mugatzen bada, jendearen erantzuna eskasa izaten dela. Hurrengo ekintzan, berriz, atsotitza</li> </ul>	

<p>gainerakoei bidali behar zaienez, elkarrekintza dago eta horrek, nire ustetan, konpromiso-maila handiagoa eskatzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Motibazioan eragiteko atsotitzak bidaltzea</li> <li>- Neuk eman nion hasiera ekintza berriari, atzo. Lehenengo atsotitzak, behintzat, zeresana eman zuen lan-sailean.</li> </ul>	
<p><u>26- 2005-04-19:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mezuen eta atsotitzen eragina neurtzen</li> <li>- Eragina "hainbestekoa" eta "eskasa" da. Beraz, datorren saioan, emaitzak aztertu eta aurrerantzean zer egin erabakiko dugu. Aukeratako bat da hurrengo hurbiltzeko ekintzari ekitea (Nork bere buruari buruzko estimazioa)</li> <li>• "Produktuen oharrak" irakurtea</li> </ul>	- "Hurbiltzeko ekintzen eragina neurtzen" galdera-sorta
<p><u>27- 2005-04-21:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emaitzak aztertu eta hurrengo hurbiltzeko ekintzari ekingo ote diogun erabaki</li> <li>• "Gizonezkoentzat haurtzaindegiak" irakurtea</li> </ul>	
<p><u>28- 2005-04-26:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Xede-erabilera eta erabilera erreala</li> <li>- Astean hirutan egitekotan geratu gara. Erabilerari buruzko indizeez gain, iruzkin bat ere egin beharko dute.</li> </ul>	
<p><u>29- 2005-04-28:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Abian diren bi hurbiltzeko ekintzen inguruan aritu gara: eragina neurtzen, aldaketarik behar ote duten aztertzen...</li> </ul>	
<p><u>30- 2005-05-03:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarraipen fitxa berriak eman dizkiet.</li> </ul>	
<p><u>31- 2005-05-05:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez dugu saiorik izan.</li> </ul>	
<p><u>32- 2005-05-10:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Amaierako balorazioa</li> </ul>	
<p><u>33- 2005-05-12:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Amaierako balorazioa</li> </ul>	

<p><u>34- 2005-05-17:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Amaierako balorazioaren emaitzen inguruko gogoeta.</li> </ul>	
<p><u>35- 2005-05-19:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Amaierako balorazioaren emaitzen inguruko gogoeta.</li> <li>• Azken hurbiltzeko ekintza abian jarri dugu (Departamentuko erabileraren estimazioa)</li> </ul>	
<p><u>36- 2005-05-24:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Amaierako balorazioaren emaitzen inguruko gogoeta.</li> </ul>	
<p><u>37- 2005-05-26:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mintzagaia: "Misae"</li> </ul>	
<p><u>38- 2005-05-31:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Langileen erabileraren indizea: datu-basea eta erabileraren bilakaeraren grafikak</li> </ul>	

### III. ERANSKINA

#### Hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-portaera

#### GALDERA-SORTA

Izen-abizenak:.....

**1. Nola hitz egiten zenuen lehen euskaraz?**

- (4)- Oso ongi
- (3)- Nahiko ongi
- (2)- Erdizka
- (1)- Gaizki
- (0)- Oso gaizki

**2. Nola hitz egiten duzu orain euskaraz?**

- (4)- Oso ongi
- (3)- Nahiko ongi
- (2)- Erdizka
- (1)- Gaizki
- (0)- Oso gaizki

**3. Zein hizkuntzatan egiten duzu etxekeekin? Jarri zenbakia, 0tik 4ra.**

<b>Senitartekoa</b>	<b>Lehen</b>	<b>Orain</b>
<b>k</b>		
Bikote-laguna		
Anaia-arreba		
Seme-alabak		
Gurasoak		

- (4)- Ia beti euskaraz
- (3)- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- (2)- Bietara.
- (1)- Erdaraz euskaraz baino gehiago
- (0)- Ia beti erdaraz.

**4. Zein hizkuntzatan egiten duzu euskaraz dakiten lagunekin?**

- (4)- Ia beti euskaraz
- (3)- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- (2)- Bietara.
- (1)- Erdaraz euskaraz baino gehiago
- (0)- Ia beti erdaraz.

**5. Zein hizkuntzatan egiten duzu lankideekin? Jarri zenbakia, 0tik 4ra.**

<b>Lankideak</b>	<b>Lehen</b>	<b>Orain</b>

**GALDERA-SORTA**

Izen-

abizenak:.....

.....

**1.- Lanean, lankideekin euskaraz egin nahi nuke.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**2.- Gosaritan, lankideekin euskaraz egin nahi nuke.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**3.- Lan-hizkuntza (zerbitzu-hizkuntzaz gainera) euskara izan dadin, zerbait egin nahi dut.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**4.- Lankideekiko harreman informaletako hizkuntza euskara izan dadin, zerbait egin nahi dut.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**5.- Zein da zure hizkuntza kuttuna?**

- (4)- Euskara soilik
- (3)- Euskara gaztelania baino gehiago
- (2)- Biak berdin
- (1)- Gaztelania euskara baino gehiago
- (0)- Gaztelania soilik

**6.- Administrazioan, denek jakin beharko lukete euskaraz.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**7.- Administrazioan, denek hitz egin beharko lukete euskaraz.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**8.- Zerbitzu-hizkuntzak euskara edo erdara izan behar luke, herritarraren arabera. Lan-hizkuntzari dagokionez ere, beste hainbeste, langilearen arabera.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**9.- Gure departamentuan euskararen erabilera bultzatzeko, ezinbestekoa da plan bat abian jartzea. Bestela, hizkuntza-ohiturek lehengoan jarraituko dute.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**10.- Gure departamentuan euskararen erabilera bultzatzeko, nahikoa da guk hala erabakitzea, ez dago inolako planen beharrik.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**11.- Euskarazko gaitasun ertaina dutenak euskara gehiago erabil dezaten, ezinbestekoa da euskarazko gaitasun handia dutenen laguntza.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

**12.- Hizkuntza-ohiturak aldatzea norberaren esku dago.**

- (4)- Guztiz ados
- (3)- Ados
- (2)- Zalantza
- (1)- Aurka
- (0)- Guztiz aurka

## IV. ERANSKINA

### Saioaren eragina neurtzen (I)

- 1- Joan den astearteko saioa bukatu ondoren, zein hizkuntzatan hitz egin zenuten?
  - Euskaraz
  - Erdaraz
  - Ez naiz gogoratzten
  
- 2- Zenbat denboran izan zenuen gogoan "euskaraz hitz egiten saiatuko naiz" gisako mezua?
  - Ezta segundo bat ere
  - 5 bat minutuz
  - Lehenengo lan-orduan
  - Ordubetetik gora
  - la goiz osoan

### **Saioaren eragina neurtzen (II)**

- 1- Gaurko saioa hasi aurretik zein hizkuntzatan aritu zara?
  - Erdaraz
  - Erdaraz euskaraz baino gehiago
  - Bietara
  - Euskaraz erdaraz baino gehiago
  - Euskaraz
  
- 2- Joan den osteguneko saioa bukatu ondoren, zein hizkuntzatan hitz egin zenuten?
  - Euskaraz
  - Erdaraz
  - Ez naiz gogoratzen
  
- 3- Zenbat denboran izan zenuen gogoan "euskaraz hitz egiten saiatuko naiz" gisako mezua?
  - Ezta segundo bat ere
  - 5 bat minutuz
  - Lehenengo lan-orduan
  - Ordubetetik gora
  - Ia goiz osoan

### **Saioaren eragina neurtzen (III)**

- 4- Gaurko saioa hasi aurretik lankideren batek euskaraz hitz egin dizunean, nola erantzun diozu?
- Erdaraz
  - Erdaraz euskaraz baino gehiago
  - Bietara
  - Euskaraz erdaraz baino gehiago
  - Euskaraz
- 5- Gaurko saioa hasi aurretik lankideren batek erdaraz hitz egin dizunean, nola erantzun diozu?
- Erdaraz
  - Erdaraz euskaraz baino gehiago
  - Bietara
  - Euskaraz erdaraz baino gehiago
  - Euskaraz
- 6- Joan den astearteko saioa bukatu ondoren lankideren batek euskaraz hitz egin zizunean, nola erantzun zenion?
- Erdaraz
  - Erdaraz euskaraz baino gehiago
  - Bietara
  - Euskaraz erdaraz baino gehiago
  - Euskaraz
- 7- Joan den astearteko saioa bukatu ondoren lankideren batek erdaraz hitz egin zizunean, nola erantzun zenion?
- Erdaraz
  - Erdaraz euskaraz baino gehiago
  - Bietara
  - Euskaraz erdaraz baino gehiago

#### **Saioaren eragina neurtzen (IV)**

8- Gaurko saioa hasi aurretik lankideren batek euskaraz hitz egin dizunean, nola erantzun diozu?

- Erdaraz
- Erdaraz euskaraz baino gehiago
- Bietara
- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- Euskaraz

9- Gaurko saioa hasi aurretik lankideren batek erdaraz hitz egin dizunean, nola erantzun diozu?

- Erdaraz
- Erdaraz euskaraz baino gehiago
- Bietara
- Euskaraz erdaraz baino gehiago
- Euskaraz

10- Orain arteko saioek eraginik izan al dute zugu?

- Oso handia
- Handia
- Hainbestekoa
- Txikia
- Batere ez

11- Zuen departamentuan lankideei euskaraz egiteko, ahalegin berezia egin behar duzu ala berez ateratzen zaizu?

- Ahalegina egin behar dut
- Batzuetan ahaleginduta, beste batzuetan berez
- Berez ateratzen zait

## V. ERANSKINA

### **Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ahaleginean izandako *esperientzia***

Laburbildu itzazu **zure esperientziaren** alderdirik aipagarrienak. Honako erabilera-esparru hauek izan ditzakezu kontuan: **etxea, lagunartea eta lana**. Esperientzia pertsonalik izan ez baduzu, zure ingurukoek bizi izan dituztenak hartu ditzakezu oinarritzat.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## VI. ERANSKINA

2005 - URRIA														
AST			ASTR			ASTZ			OSTE			OSTI		
3	Zenbat euskaraz?		4	Zenbat euskaraz?		5	Zenbat euskaraz?		6	Zenbat euskaraz?		7	Zenbat euskaraz?	
	Aukerarik	% 40		Aukerarik	% 40		Aukerarik ez	% 40		Aukerarik	% 40		Aukerarik	% 40
	% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50
	% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60
	% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75
10	Zenbat euskaraz?		11	Zenbat euskaraz?		12	Zenbat euskaraz?		13	Zenbat euskaraz?		14	Zenbat euskaraz?	
	Aukerarik	% 40		Aukerarik	% 40		Aukerarik ez	% 40		Aukerarik	% 40		Aukerarik	% 40
	% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50
	% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60
	% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75
17	Zenbat euskaraz?		18	Zenbat euskaraz?		19	Zenbat euskaraz?		20	Zenbat euskaraz?		21	Zenbat euskaraz?	
	Aukerarik	% 40		Aukerarik ez	% 40		Aukerarik ez	% 40		Aukerarik	% 40		Aukerarik	% 40
	% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50
	% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60
	% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75
24	Zenbat euskaraz?		25	Zenbat euskaraz?		26	Zenbat euskaraz?		27	Zenbat euskaraz?		28	Zenbat euskaraz?	
	Aukerarik	% 40		Aukerarik ez	% 40		Aukerarik ez	% 40		Aukerarik	% 40		Aukerarik	% 40
	% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50		% 10	% 50
	% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60		% 20	% 60
	% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75		% 30	%75

## VII. ERANSKINA

### Euskararen normalizazioaren pertzepzioa

Zure ustez, zein marrazkik irudikatzen du egokien euskararen normalizazio-prozesua?  
Aukera itzazu bat, bi edota hiru, eta aipatu itzazu zergatiak

① .....

.....

.....

.....




② .....

.....

.....

.....



③ .....

.....

.....

.....



④

.....


.....

.....

.....

.....

.....



⑤


.....

.....

.....

.....

.....



⑥

.....

.....

.....

.....

.....



⑦

.....


.....

.....

.....

.....

.....



⑧

.....

.....

.....

.....

.....

.....



⑨

.....


.....

.....

.....

.....

.....



⑩

.....

.....

.....

.....

.....

.....



① ①

.....

.....

.....

.....

.....

.....



① ②

.....


.....

.....

.....

.....

.....




①③ .....

.....

.....

.....

.....




①④ .....

.....

.....

.....

.....



# EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN PERTZEPZIOA

## Langileen iritzia

- 1- Euskara pisu astun bat bezala sentitzen badugu, hobe dugu beste gauza batekin saiatzea (3. irudia).
  - Euskaraz egitea nola ikusten duzue, BEHAR edo NAHI bezala?
  
- 2- Laguntza beharrezkoa da. Dakienak erabili egin behar du eta ez dakienari lagundu (5. irudia).
  - Dakienak nahikoa laguntzen al dio ikasten ari denari?
  - Ikasten ari denari nahiko laguntza jasotzen duela iruditzen al zaio?
  
- 3- Gure bulegoan bizi dugun egoeraren irudia azaltzen du marrazki honek. Elkar laguntzeko borondatea dago gure artean (5. irudia).
  - Zuen bulegoan, "elkar laguntzeak" zer esan nahi du? Nola gauzatzen da laguntza hori?
  
- 4- Apustu hau irabaziko dugula uste dut. Garaile aterako gara (6. irudia).
  - "Apustua irabazteak" zer esan nahi du?
  - Nola ulertzen du garaipena zuetako bakoitzak?

5- Zutik dagoenak zerbait agintzen dio makurtuta dagoenari, eta gu ere euskara hitz egitera behartuko bagintuzte gehiago hitz egingo genuke (14. irudia).

- Hizkuntza kontuetan, ona al da behartzea?
- "Behartze" horren barruan, non jarriko zenukete muga?

5- Ni lehen ez nintzen "mendizalea" eta mendira joaten nintzenean zaila egiten zitzaidan. Ba euskararekin berdin gertatzen zait: pixkanaka noa baina "gailurra" egingo dut azkenean (1. irudia).

- Hizkuntza kontuetan, "gailurra" zer da zuen ustez -zuek, zuen seme-alabak, zuen lagunartea, zuen lankideak-?
  - Bi hizkuntza jakitea (euskara eta gaztelania)
  - Hiru hizkuntza jakitea (euskara, gaztelania eta ingelesa)
  - Lau hizkuntza jakitea (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa)
  - ...

6- Euskal Herriko hizkuntza delako (12. irudia).

- Ezinbestekoa al da hizkuntza eta politika nahastea?
- Zeintzuk dira jendea euskara ikastera bultzatzen duten arrazoi nagusiak?
- Zeintzuk dira jendea euskaraz egitera bultzatzen duten arrazoi nagusiak?

7- Euskararen osasuna ez dakit hobetzen edo txartzen ari den, batzuetan ematen du aurrera doala eta bestetan alderantziz: (9. irudia).

- Zein da zuen diagnostikoa?
- Zeintzuk dira egoeraren adierazle nagusiak?

## VIII. ERANSKINA

**Lankideen hizkuntza-portaera berria zaintzea,  
lehengo ohituretara jotzeagatik kargu hartzea**

**EDO**

**“POLIZIA LINGUISTIKOARENA” egitea**

- ▶ 2005-02-21ean hasita, astebetez hartuko du langile bakoitzak “polizia linguistikoaren rola”.
  
- ▶ Hauxe da egutegia:

- 2005-02-17 >	<b>A langilea</b>
- 2005-02-24 >	<b>B langilea</b>
- 2005-03-03 >	<b>C langilea</b>
- 2005-03-10 >	<b>D langilea</b>
- 2005-03-17 >	<b>E langilea</b>
- 2005-04-05 >	<b>F langilea</b>
- 2005-04-12 >	<b>G langilea</b>
  
- ▶ Eginkizun hau betetzen duenak osteguneko saioan honako hauei buruzko informazioa eman beharko du, ahoz.
  - Zenbat aldiz hartu dien kargu lankideei, eta zertaz ari ziren, laneko kontuez edo gai informalez.
  
  - Zenbat aldiz hartu dioten kargu lankideek berari, eta zertaz ari zen, laneko kontuez edo gai informalez.

- ▶ Osteguneko saioan horren guztiaren berri eman ahal izateko, astean zehar taulatxo bat beteko du.

<b>A langilea</b>	<b>Zenbat aldiz, eta laneko kontuez (L) edo gai informalez (I) (aldiko makiltxo bat jarri, eta ondoren, "L" edo "I" hizkia parentesi artean)</b>
<i>Kargu hartu diot...</i>	/ (L), .....
<i>Kargu hartu didate</i>	/ (I), .....

## IX. ERANSKINA

### LANKIDEEKIKO HARREMANETAKO HIZKUNTZA


#### MINTZAGRAMA

1- Ipini ezazu hurrengo orrialdeko grafikoan lankide bakoitzarekiko harremanetako hizkuntzari dagokion zenbakia:

- (1) Gehienbat euskaraz
- (2) Euskaraz erdaraz baino gehiago
- (3) Bietara
- (4) Erdaraz euskaraz baino gehiago
- (5) Gehienbat erdaraz

2- Ondoren, aipatu itzazu lankide bakoitzarekin lantzen dituzun gairik ohikoenak, eta maiztasuna.

Lankidea	Gaia	Maiztasuna
A langilea		
B langilea		
C langilea		
D langilea		
E langilea		



## X. ERANSKINA

### Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak

#### Irakaslearen orria

##### Helburu estrategikoa:

Lantzen ari garen gaiaren aurrean parte-hartzaileek erakusten dituzten hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak identifikatzea<sup>17</sup>. Portaera horietatik, parte-hartzaile bakoitzarengan nagusitzen diren joerak eta gaiarekin duten jarrera ondorioztatu ahal izango ditugu. Halaber, etorkizuneko portaerari buruzko iragarpena eginez, portaera hori modelatzea.

*Oinarri teorikoa: Jarreraren gaineko baieztapenak iragarpenak dira. Norbaiten jarreraren gaineko baieztapena egiten dugun guztietan, haren etorkizuneko portaerari buruzko iragarpena egiten ari gara beraren iraganeko portaeraren behaketan oinarrituta. Alegia, orain arte modu jakin batean jokatu izan duenez pentsatzekoa da etorkizunean ere antzera jokatzea (Robert Mager, 2003).*

##### Helburu orokorra:

Hurbiltzeko portaera nagusiak indartzea eta urruntzekoak ahultzea, horretarako ekintza-plan egokia zehaztuz.

---

<sup>17</sup> Hurbiltzeko portaera da objektu, jarduera edo egoera batenganako preferentzia adierazten duen ekintza-multzoa. Alegia, pertsona helmuga jakin batera hurbiltzea helburu duen jokabidea.

## Hurbiltzeko eta urruntzeko portaerak

1- Zerbaiten aldeko jarrera dugunean, neurri batean edo bestean, zerbait horren aldeko portaera izaten dugu. Eta ondorioz, zerbait horretara hurbilduko gaituzten ekintzak gauzatuko ditugu. **Hurbiltzeko ekintzak** deituko diegu.

Zerbaiten aurkako jarrera dugunean, neurri batean edo bestean, zerbait horren aurkako portaera izaten dugu. Eta ondorioz, zerbait horretatik urrunduko gaituzten ekintzak gauzatuko ditugu. **Urruntzeko ekintzak** deituko diegu.

Esate baterako, ingurumen osasuntsuago baten aldeko jarrera duenarengandik honelako portaerak espero ditzakegu:

### Hurbiltzekoak

- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_

Urruntzekoak

- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_

**2-** Lan-sailean euskararen erabilera areagotzeko jarrera duenarengandik, berriz, zer-nolako portaerak espero beharko genituzke?

Hurbiltzekoak

- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_

Urruntzekoak

- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_

**3-** Eta zeintzuk dira zure eguneroko hizkuntza-portaeraren joera nagusiak?

Hurbiltzekoak

- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_

Urruntzekoak

- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_
- ✓ \_\_\_\_\_

**4-** Gure helburua lan-sailean euskararen erabilera areagotzea bada, helburu horretara iristeko, jakina, hurbiltzeko portaera/ekintzak indartu eta urruntzekoak ahuldu edota ezabatu egin beharko ditugu. Zeintzuk dira, zerrendatu dituzuenen artean, indartzeko edota ahultzeko modukoak iruditzen zaizkizunak? Finkatuko al ditugu helburu zehatz batzuk denon artean eta prestatuko al dugu ekintza-plan bat?

## **EKINTZKEN ZERRENDA**

(Dinamizatzailearen zerrenda)

### **Hurbiltzekoak:**

- 1- Euskararen erabilera areagotzeko planarekin zerikusia duten gaiak izaten ditut hizpide, bai lan-sailean bai eguneroko saioetan.
- 2- Lantokitik kanpo ere euskara gehiago erabiltzen saiatzen naiz.
- 3- Lexiko mailako zalantzaren bat izanez gero, lankideei galdetzen diet, hiztegian kontsultatzen dut, gure zerrendan sartzen dut ...
- 4- Gure saioetan landu daitezkeen proposamenak egiten saiatzen naiz.
- 5- Ahaleginak egiten ditut saioetara egunero eta puntual joateko.
- 6- Behin baino gehiagotan egiten dut gogoeta nire hizkuntza-ohiturei buruz.
- 7- Edozein aukera aprobetxatzen dut erdaratik euskarara pasatzeko.
- 8- Mezu periodiko bat dut ordenagailuko agendan jarria "euskaraz egin nahi dudala" gogorarazteko.
- 9- Dinamizatzaileak saioetan ematen dizkigun etxeko lan guztiak edo gehienak egiten ditut.

### **Urruntzekoak:**

- 1- Saioetatik kanpo ez dut planari buruz hitz egiten.
- 2- Euskaraz ari naizenean zailtasunen bat sumatzen badut, berehala pasatzen naiz erdarara.
- 3- Ez dut ahalegin berezirik egiten saioetara egunero eta puntual joateko.
- 4- Nire hizkuntza-ohiturak ez ditut gehiegi aztertzen, ez baitut uste aldatzea lortuko dudarik.

- 5- Edozein aukera aprobetxatzen dut euskaratik erdarara pasatzeko.
- 6- Lanpetuta baldin banago erdaraz egiten dut inongo zalantzarik gabe.
- 7- Dinamizatzaileak saioetan ematen dizkigun etxeko lanak ez ditut egiten.

## Adostutako hurbiltzeko ekintzak

- 1- Mezu periodikoa. Mezu periodiko bat jarriko du nork bere agenda elektronikoan, egun edota aste horretarako dituen helburuak gogorarazteko.
  
- 2- Motibatzeko atsotitzak. Dinamizatzaileak, astebetez, "euskaraz egiteko asmoa" gogorarazteko ardura hartuko du, eta posta elektronikoz mezu bat bidaliz gogoraraziko die langileei. Mezua Gotzon Garateren "Atsotitzak" liburutik hartutakoa izango da.
  
- 3- Motibatzeko atsotitzak Langile batek, astebetez, "euskaraz egiteko asmoa" gogorarazteko ardura hartuko du, eta posta elektronikoz mezu bat bidaliz gogoraraziko die lankideei. Mezua Gotzon Garateren "Atsotitzak" liburutik hartutakoa izango da.
  
- 4- Erabileraren estimazioa. Egun jakin bateko erabileraren balorazioa egingo duzu:
  - Langile guztien erabilerari buruzko estimazioa:
    - Indize bat ezarri (ehunekotan).
    - Iruzkinen bat egin.
    - Dinamizatzaileari telefonoz adierazi.
  
  - Nork bere erabilerari buruzko estimazioa:
    - Kalifikazio bat ezarri (ONA, BALEKOA, ESKASA)
    - Arrazoiak adierazi.
    - Dinamizatzaileari posta elektronikoz bidali.

5- Gogoeta. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuari buruzko gogoeta egingo duzu, dinamizatzailleak egindako galderari erantzunez:

- Posta elektronikoz bidaliko die dinamizatzailleak langileei galdera.
- Posta elektronikoz erantzungo diote langileek.
- Hurrengo saioan, dinamizatzailleak aukeratutako gogoeta batzuk denon artean aztertuko dituzte.

6- Astearte eta ostegunetan, hamaiketakoaren garaian euskaraz aipatzeko gai bana ekarri, txandaka.

7- Elebakarraren rola hartzea

## XI. ERANSKINA

### 1- Euskararen erabilera banaka

*Galdera: nola egiten duzue elkarrekin?*

	A-rekin	B-rekin	C-rekin	D-rekin	E-rekin	F-rekin	G-rekin
A-k dio							
B-k dio							
C-k dio							
D-k dio							
E-k dio							
F-k dio							
G-k dio							

(4)- la beti euskaraz

(3)- Euskaraz erdaraz baino gehiago

(2)- Bietara.

(1)- Erdaraz euskaraz baino gehiago

(0)- la beti erdaraz.

### 2- Euskararen erabilera bikoteka

	A-rekin	B-rekin	C-rekin	D-rekin	E-rekin	F-rekin	G-rekin	Batez besteko aa
A-k dio								
B-k dio								
C-k dio								
D-k dio								
E-k dio								
F-k dio								
G-k dio								

Bikotea	Puntuazioa	Batez bestekoa
<b>1- A - B / B - A</b>	(2 + 3) / 2	2,5
2- A - C / C - A		
3- A - D / D - A		
4- A - E / E - A		
5- A - F / F - A		
6- A - G / G - A		
<b>7- B - C / C - B</b>		
8- B - D / D - B		
9- B - E / E - B		
10- B - F / F - B		
11- B - G / G - B		
<b>12- C - D / D - C</b>		
13- C - E / E - C		
14- C - F / F - C		
15- C - G / G - C		
<b>16- D - E / E - D</b>		
17- D - F / F - D		
18- D - G / G - D		
<b>19- E - F / F - E</b>		
20- E - G / G - E		
<b>21- F - G / G - F</b>		

### 3- Euskararen erabilera lan-sailean

$\frac{(1.\text{bikotearen puntuazioa}) + (2.\text{aren puntuazioa}) + (\dots) + (21.\text{aren puntuazioa})}{21 \text{ bikote}}$ <p>= erab. indizea</p>
--